



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 11

45. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Lankidetz hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean “Ingeleseko hizkuntza murgilketa” lurralde-kooperazioko programa garatzeko (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa. Izendapena (5. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana (6. or.).

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetza hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean “Ingeleseko hizkuntza murgilketa” lurralde-kooperazioko programa garatzeko.

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut: "Lankidetza hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean “Ingeleseko hizkuntza murgilketa” lurralde-kooperazioko programa garatzeko".

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Lankidetza hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean “Ingeleseko hizkuntza murgilketa” lurralde-kooperazioko programa garatzeko

Alde batetik, Mercedes Cabrera Calvo-Sotelo andrea, Hezkuntza eta Zientzia ministroa, apirilaren 10eko 464/2006 Errege Dekretuaren babesean eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidegoaren 30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritako eskumena erabiliz.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak ordezkatuz eta haren izenean, Hezkuntza kontseilari Luis Campoy Zueco jauna, 14/2004 Legeko 41. artikulua indarrez.

Bi aldeek, behar den ordezkaritzan ari direla, gaitasun osoa ezagutzen diote elkarri hitzarmen hau emateko eta honakoa

AZALTZEN DUTE

Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan ezartzen da estatuaren eskumen osoa dela “titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 47. artikuluan haxe ezartzen du: “Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauak eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumena ere”.

Hezkuntza kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren 6. artikuluan ezartzen denez, estatuak, autonomia erkidegoen lankidetzarekin, lurralde-kooperazioko programak landuko ditu, interes orokorreko hezkuntzaren arloko helburuak lortzeko. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta autonomia erkidegoek, dituzten eskumenen arabera, garatu eta kudeatuko dituzte programa horiek, horretarako sinatzen diren lankidetzaren hitzarmenen bidez.

Bi aldeak ados daude lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutako hizkuntza murgilketako programa bat aurrera eramateko helburuan, ikasturtean zehar eskola garaian ingelesaren ikaskuntza sendotzeko, hizkuntza horren alderdi praktikoak sustatzeko eta irakasleek ikasgeletan egiten duten lana osatzeko.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, gobernuaren politika autonomikorako batzorde delegatuaren alde aurreko onepenarekin, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen dute, 2005/2006 ikasturtean zehar eta 2006/2007 ikasturteko lehen hiruhilekoan hizkuntza murgilketako programa garatzeko. Hona hemen hitzarmenaren

KLAUSULAK

Lehenbizikoa. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren artean beharrezkoak diren lankidetzaz tresnak ezartzea, bertan ezarritako zehaztapenei jarraituz, hizkuntza murgilketako programa bat gauzatzeko. Hala eta guztiz ere, hurrengo klausulan garatutakoaren arabera, hitzarmen honek ez du berekin ekarriko autonomia erkidegoarentzako zuzeneko transferentziarik ministerioaren aldetik.

Bigarrena. Konpromisoak eta jarduerak.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak egin beharrekoak:

a) Parte hartzen duten ikasleen hezkuntza jarduerak antolatzea. Barnetegi araubidean egiten dira, astebetean, Espainiako leku ezberdinetako instalazioetan. Jarduera horiek departamentu honek barnetegi horietara joaten diren taldeen egonaldietan behar diren zerbitzu guztiak emateko kontraturiko enpresak edo enpresek emanen dituzte, betiere kontratazio administratiboari buruzko arau indardunen arabera.

b) Programatzen diren jarduerak gauzatzeko behar den material pedagogikoa eskuratzea.

c) Langile talde espezializatua kontratatzea. Langile horiek arduratuko dira jarduerak gauzatzeko eta parte hartzen duten ikasleei lagunduko dieten irakasleekin batera jardunen dute.

d) Programaren barruan garatzen diren jarduerak ikuskatzea.

e) Parte-hartzaile guztiak Hezkuntza Ministerioak lurralde lankidetzaz programetarako kontratatzen duen istripuen eta erantzukizun zibileko aseguruan sartzea.

Hauexek dagozkio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari:

a) Programa autonomia erkidegoan zabaltzen eta ezagutarazten laguntzea.

b) Joanen diren taldeak hautatzea. Talde horiek 25 ikasle osatuko dituzte eta irakasle bat edo bi joanen dira haiekin.

c) Hautaketa egiteko kontuan hartuko da ikastetxe eskatzaile bakoitzak igorritako parte-hartze proiektua; horretarako, proiektuaren eduki pedagogikoa baloratuko da, baita hezkuntza maila horretan ingelesa ikasteari begira programatutako helburuak lortzeko duen baliagarritasuna ere. Halaber, kontuan hartuko da proiektuak aplikatzeko aukera errealak dituen, izaera berritzailea duen, ikasleak motibatuzeko baliagarria den eta ikasgelan egin beharreko lanarekin, taldea joan aurretik eta ondoren, lotura duen. Bestalde, kontuan hartuko dira ikastetxea dagoen eskualdeko ezaugarri sozioekonomikoak, ekonomia, kultura edo ingurune arrazoiak direla medio beste eskaintza batzuk izateko aukera gutxiago dituzten ikasleei lehentasuna emate aldera.

d) Ikasleek eskolak eman ohi dizkien irakasle baten edo biren laguntza izanen dute. Irakasle horiek jarduera prestatuko dute alde aurretik ikasleekin batera, programaren aprobetxamendu pedagogikoa eta didaktikoa zainduko dituzte eta ikasleen ardura izanen dute.

e) Ikasle taldeen bidaia antolatzea eta finantzatzea jarduerak gauzatzeko diren tokiraino edo tokietaraino. Nafarroako Foru Komunitateari 2005. urtean egotzi ahal zaion gehienezko gastua 4.000 eurokoa da, 2005. urteko gastuen aurrekontuko "Atzerriko hizkuntzen sustapena" izeneko 422002 41540 2212 322E00 kontusailaren kargura.

Hirugarrena. Batzorde Misto.

Bi aldeek erabaki dute batzorde misto bat eratzeko, jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta hitzarmen hau interpretatzeko. Batzordeak sei kide izanen ditu; horietatik hiru Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak izendatuko ditu, bi Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta bat Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritzak. Batzordea aldeetako batek eskatzen duenean bilduko da.

Hitzarmen honetan jasotzen den programaren jardueren zabalkundea elkarrekin egiten da, eta beharrezkoa izanen da hitzarmen hau espresuki aipatzea.

Laugarrena. Indarraldia.

Hitzarmen honek sinatu eta biharamunean hartuko du indarra, eta indarrean jarraituko du 2006ko abenduaren 31 arte.

Hitzarmena urtebeteko epeetan luza daiteke espresuki. Horretarako, hitzarmenari eranskin bat

gehituko zaio, eta bertan zehaztuko dira bi aldeek hartutako konpromisoak.

Bosgarrena. Suntsiarazteko kausak.

Aurreko klausulan ezarritako indarraldia gorabehera, hitzarmena suntsiarazteko kausa izanen da bi aldeetatik edozeinek bertan ezarritakoa ez betetzea, horrek dakartzan legezko ondorioekin.

Seigarrena. Jurisdikzioa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du eta betetzean aldean artean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura izanen dira.

Eta horrela ager dadin eta hitzartutako guztia-
rekin ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzar-
men hau sinatzen dute Madrilan,(e)ko
.....aren(e)an.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa.

Izendapena

Apirilaren 21eko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdia gainditu dutenen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera ordenatuta. Deialdia 2005eko abenduaren 13ko Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariaren erabakiaren bidez onetsi zen. Apirilaren 10eko lehendakariaren erabakiaren bidez, berriz, lanpostuen kopurua handitu zen, batetik hirura, gaur egun Comptos Ganberako plantilla organikoan diren administrari lanpostu hutsak betetzeko asmoz. Hori guztia ikusita, deialdiko 7. oinarriaren 2. idatz-zatiarekin bat, lanpostu huts horiek deialdia gainditu duten hiru izangaiei esleitu behar zaizkie. Hori dela eta, Lehendakari-tza honek

ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako plantilla organikoan gaur egun dauden administra-

ri lanpostu hutsak M^a Isabel Lander Laurenz, Cristina Casado Redín, eta M^a Francisca Pérez de Albéniz Andueza izangaiei esleitzea.

Bigarrena. Aurreko idatz-zatian aipaturiko izangaia Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea administari lanposturako, C mailan, eta ezartzea aipaturakoek 10 egun naturaleko epea izanen dutela, izendapenaren ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aitzina, karguaren jabetza hartzeko. Jabetza hartzen ez dutenek deialdi honetatik sortutako eskubideei uko egiten dietela ulertuko da.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta interesdunei jakinaraztea lanpostuaren jabetza hartzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria:
Luis Muñoz Garde

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2006ko martxoaren 6ko erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana igorri zuen Nafarroako Parlamentura, honek iritzia eman dezan.

Hori dela eta, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikulua xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana tramitera onartzea.

2. Plan horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana (2006-2010)

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

1. AUKERA BERDINTASUNAREN EGOERA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN (8. or.).

2. ESPARRU JURIDIKOA (10. or.).

3. HELBURUAK (14. or.).

4. HEDAPENA, EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA (16. or.).

4.1. Hedapena eta komunikazioa (16. or.).

4.2. Ezarpena (16. or.).

4.3. Jarraipena eta ebaluazioa (17. or.).

5. JARDUERA ARLOA (18. or.).

ZEHARKAKO 1. ARLOA. Aukera berdintasunaren printzipioa administrazio publikoetan txertatzea (18. or.).

ZEHARKAKO 2. ARLOA. Informazioa, komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa (20. or.).

1. ARLOA. Sustapen ekonomikoa, enplegua eta prestakuntza (21. or.).

2. ARLOA. Lurralde antolamendua eta etxebizitza (23. or.).

3. ARLOA. Hezkuntza eta sustapena (25. or.).

4. ARLOA. Osasuna eta gizarte ongizatea (27. or.).

5. ARLOA. Kultura, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea (29. or.).

6. ARLOA. Herrietako emakumeak (30. or.).

7. ARLOA. Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea (32. or.).

8. ARLOA. Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa (33. or.).

9. ARLOA. Emakumeen kontrako indarkeria (34. or.).

10. ARLOA. Garapenerako lankidetzak (36. or.).

AURKEZPENA

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana, Idazki honetan aurkezten duguna, botere publikoak nazioartean, Europan, Estatuan, autonomia erkidegoetan eta toki entitateetan, emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta egiazkoa erdiesteko xedeaz sustatzen ari diren politiken eta planen testuinguruan kokatzen da.

Plan honek aukera berdintasunerako politika global bat taxutzen du. Bestetik, erakundeen borondatea adierazten du, eta berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa harrarazten die arduradun politiko eta teknikoei, bakoitzak bere jardun esparruan aplikatu dezan.

Erakundeak buruan dira gure gizartean oraindik bizirik dirauten berdintasun ezaren agerpideak ezabatzeko lanak bultzatzen, eta halaxe islatzen da agiri honetan, non jarduketa esparru bat ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitateko foru eta toki administrazioek eta planaren garapenaren ardura izanen duten erakundeek jarduteko orientabide gisa balia dezaten.

Azken urteotan berdintasunaren arloan aurreapenak gertatu badira ere, eta gure antolamendu juridikoan berdintasun formala jasorik egon arren, eguneroko bizitzan badira oraindik emakumeek eta gizonen eskubide eta aukera berdinak ez dituzten egoerak. Egoera horiek zuzenduko badira, politika aktiboak behar dira izatezko berdintasuna erdiesteko traba eta eragozpenak desagerrarazteko.

Berdintasuna, pertsonen eskubidea ez ezik, behar estrategikoa ere bada, eta sinetsita gaude beharrezkoa dela demokrazian sakontzeko eta gizarte zuzenagoa, kohesionatuagoa eta sozialki eta ekonomikoki garatuagoa eraikitzeko. Horregatik sortu da plan hau.

Izan ere, hau da berdintasuna: pertsona guztiek beren gaitasun pertsonalak esparru publikoan

nahiz pribatuan garatzeko aukera izatea, erabakiak hartzeko aukera izatea, sexuaren arabera ohiko rolet ezartzen dituzten mugak aintzat hartu gabe. Horretaz gainera, gizon eta emakumeen desira eta premia guztien balioa aitortzea ere bada berdintasuna.

Proposatzen den berdintasunak emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen du eta batzuen zein besteen berezitasunak hartzen ditu aintzat, orain arte bultzatu eta zabaldu den joera, gizonezkoen eredia, zuzentzeko.

Hau da, hortaz, xedea: gizonen eta emakumeen arteko harremanen eredia –harreman sozialak, pertsonalak, lanekoak, familia barrenekoak– hobetzea, populazio guztiaren bizi kalitatea hobetu dadin.

Plan honek ezarritako neurrietan bi estrategia batzen dira: bata, zeharkakotasuna, hau da, politika, neurri eta ekintza guztien prestaketan, aplikazioan eta segimenduan generoaren dimentsioa txertatzeko ahaleginak egitea. Eta bestea, ekintza positiboak edo neurri berariazkoak, aldi baterakoak, neutroak diruditen jokabide sozialen emaitza diren bereizkeriak zuzendu edo arintzeko aukera ematen dutenak. Bi estrategiak ezinbestekoak dira, eta elkarren osagarri ere bai.

Plana sortzeko prozesuan gizarte gaietan esperientzia duten profesional askok hartu dute parte, eta hori, dudarik gabe, oso lagungarria izan da Nafarroako gizartearen osaera anitzaren isla diren planteamendu eta irizpide anitzak txertatzeko.

Sarrera honetan gure esker ona helarazi nahi diet beren jakinduria, denbora eta ilusioa eskainiz gaur Nafarroan Berdintasunerako I. Plana aurkezteko bidea erraztu diguten pertsona eta erakunde guzti-guztiei.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Nafarroako Emakumearen Institutuko Zuzendari Kudeatzailea: Teresa Aranaz Jiménez

1. AUKERA BERDINTASUNAREN EGOERA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN

Azken hamarkadetan, emakumeak gizartearen esparru guztietan sartzen eta inplikatzeko joan dira (hezkuntzan, enpleguan, partaidetzan), baina eragozpenak eta zailtasunak daude oraindik ere gizonen maila berean eta berdintasunez esparru horietan sartu eta parte har dezaten. Besteren artean, beraz, berdintasuna mendealdeko gizartearen funtsezko helburu bilakatu da.

Diagnosietan bildutako datuek erakusten dutenez, Foru Komunitatean berdintasunaren arloan aurrerapauso batzuk eman badira ere, asko dira oraindik bete gabe dauden helburuak gizartearen esparru guztietan emakumeen eta gizonen berdintasun egiazkoa eta erreala lortzeko.

Halatan, enpleguan eta hezkuntzan, besteak beste, emakumeen partaidetzak gora egin du, nabarmen, azken urteotan, baina begi bistakoa da ez dela beti baldintza berdinetan gertatu. Datuek egoera asko hobetu daitekeela uzten dute agerian.

Sindikatuetan, alderdi politikoetan eta elkarteetan parte hartzeari dagokionez, emakumeen presentzia txikiagoa da eta handiagoak zailtasunak emakumeek karguak eta ardura lanpostuak eskuratzeko eta horiei eusteko.

Zenbait egoera, hala nola etxebizitza eskuratzeko edo lana eta familia batera eramateko zailtasunak, edo genero indarkeria, desberdintasun larria eragiten duten oinarriko aspektuak dira.

Era berean, hirigintza planifikazioari, lurralde antolamenduari eta garraioaren planifikazioari pertsona guztiak eta betetzen dituzten lan guztiak kontuan hartzen dituen ikuspegitik heldu behar zaie.

Garrantzitsua da kulturaren eta kirolaren esparruetan emakumeen balioak eta esperientziak saritzea, eta haien presentzia areagotzea, arte, kultura eta kirol ekoizpenean, bai eta haien lorpenak ikusgai jartzea ere.

Gero eta emakume gehiago lan merkatuan sartu izanak aldaketa ekarri du emakumeek eta gizonen artean ohi dituzten zereginetan. Aldaketa hori dela eta, beharrezkoa da lan egitea egituraketa sozial berria sortzeko lanean hasi beharra dago eta, eta pertsonen beharrak kontuan hartu, ardura familiarak, pertsonalak eta lanekoak modu orekuan banatu ahal izateko.

Emakumeen osasunari eta ongizateari dagokionez ez da ahantzi behar gehienetan emakumeek betetzen dutela osasun-zaintzailearen eginkizuna, eta errealitate horrek maiz kalte egiten diela emakumeen beraien osasunari eta ongizateari. Horren haritik, gutxietsi egiten da batzuetan emakumeen osasun arazoaren garrantzia, eta ez dira horien alderdi guztiak aintzat hartzen.

Emakumeen kontrako indarkeria egungo gizartearen arazo larrienetako bat da eta, horrexegatik, indarkeriaren kontra borrokatzeko tresnak ezarri behar dira, indarkeria desager dadin lortzeko, eta behar diren baliabideak jarri, biktima diren emakumeen premiei erantzuteko.

Bereizkeria eragiten duten arrazoiek erro sakonagoak dituzte herrietan, baliabideez eta zerbitzu ez baliatzeko aukera mugatuagoa baita, bereziki emakumeentzat.

Foru Komunitatearen zati handi bat herriak direnez, Nafarroako hainbat eskualdetako emakumeen egoera berezia hartu behar da kontuan plan honetan ezarritako helburu bakoitza garatzerakoan.

Testuinguru horretatik abiatuz, Nafarroako Foru Komunitateko Aukera Berdintasunerako I. Planaren jardura arloak zehaztu dira. Haren helburuak eta ekintzak prestatzean, zeharka, gizartearen bazterturik geratzeko arriskuan dauden emakume taldeak hartu dir aintzat: batez ere ezgaitasuna duten emakumeak, etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, prostitutatik edo presoak. Nafarroan azken urteotan etorkinen kopurua asko handitu denez garrantzi berezia du emakumeen eta neskatuen egoerari arreta emateak, maiz desberdintasuna, bazterkeria edo indarkeria pairatzeko arriskua ere handiagoa baitute.

Desberdintasun egoera horiei heltzea, beraz, foru nahiz toki administrazio publikoen agenda politikoetan neurri handiagoan edo txikiagoan sartu den helburua da.

Dagoeneko Nafarroako Gobernuako departamentu batean baino gehiagotan jarri dira abian hainbat neurri, Nafarroako Emakumearen Institutuarekin koordinaturik: Genero Indarkeriari aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko erakunde arteko akordioaren Segimendu Batzordea, bere baitan Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, Osasun Departamentua, Gizarte Ongizate Departamentua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Etxebizitza, Hezkuntza biltzen dituenak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Aukera Berdintasunaren Atala du, eta Enplegu eta Emakume Batzordeko kide ere bada. Batzorde horretan Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria da buru, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza, Lan Zuzendaritza, Hezkuntza eta Nafarroako Emakumearen Institutuko Zuzendaritza biltzen dira bertan.

Urtero Nafarroako Emakumearen Institutuak eta Osasun eta Hezkuntza departamentuek eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak sinatutako lankidetzak akordioak berritzen dira. Europar Batasunak ere finantzatzen dituen proiektuetan (berdintasun printzipioa lehentasun horizontala da) Nafarroako Emakumearen Institutuak parte hartzearen ondorioz, Institutua kide da proiektu horien zuzendaritza edo jarraipen batzordeetako askotan, gainerako organismo betearazleekin batera eta Kanpoko Ekintzarako Zerbitzuaren laguntza teknikoarekin. Horren guztiaren ondorioz Institutua lankidetzan aritzen da Nafarroako Gobernuko departamentu gehienekin.

Lankidetzak eta berdintasun helburuak batera lortzeko modua sistematizatzeko erreferentziazko esparrua egituratzen du plan honek.

Toki administrazioan, bestalde, urrats sendoak egin dira azken urte hauetan, berdintasuna lortzeko baldintzak hobetuz eta sortuz.

Udalen konpromisoa eta Nafarroako Emakumearen Institutuak bultzatutako programak batera gauzatzea oso baliagarria izan da udaletan berdintasun politiken ezarpena eta kudeaketa hobea izan dadin.

Toki entitateek aukera dute diagnosi orokorra beren udalerriko errealitatera egokitzeko, Foru Komunitateko Berdintasun Planean proposaturiko neurriak beren ingururako moldatuz eta lehentasunak ezarriz.

Emakumearen edo Berdintasunaren zinegotzi-egoak egotea funtsezkoa da konpromisoa ikusgai jarri eta politikoki kudeatzeko. Berdintasun teknikiak egotea epe ertaineko eta luzeko esku-hartzearen profesionaltasunaren eta egonkortasunaren berme izanen da. Berdintasunerako udal planak garatzeko konpromisoaren eta bultzada politiko eta teknikoaren gakoak dira biak.

Hogeita hamasei toki entitatetan ⁽¹⁾ hasiak dira berdintasunaren inguruko jarduketak, programak edo planak gauzatzen. Hemezortzi udalek ⁽²⁾ dituzte Emakume edo Berdintasun zinegotzi-egoak eta/edo batzordeak. Lau udalek ⁽³⁾ berdintasun teknikariak sartu dituzte plantilletan. Hamazazpi udalek ⁽⁴⁾ kontusail berariazkoak ezarri dituzte aurrekontuetan onetsitako planak gauzatzeko.

Hauexek dira hurrengo urteetan aurrean izanen ditugun egitekoak: Konpromiso politikoa areagotzea eta udalei egiturak, baliabide teknikoak eta aurrekontu berariazkoak eskaintzea. Horixe da helburu estrategikoak erdiesteko eta lurraldeen errealitatera egokitutako eta gainerako erakundeekin koordinaturiko esku-hartzeen kalitatea eta egonkortasuna bermatzeko modu bakarra.

Berdintasunerako 1. plan honetan jasorik dago Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate honetako herritarrekin, emakume eta gizonekin, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzen joateko hartu duen konpromisoa.

(1) Ablitas, Oibar, Altsasu, Ameskoabarren, Agoitz, Azagra, Barañain Baztan Berriozar, Burlata, Cabanillas, Cintruenigo, Erdialdeko Garapen Partzuergoa, Corella, Lizarra, Gesalatz, Uharte, Itza, Los Arcos, Bortizirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Buñuelgo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Mendabia, Murchante, Ollaran, Iruña, Azkoien, Ribaforada, San Adrian, Zangoza, Tütera, Valtierra, Villafranca, Atarrabia, Deierrri, Zizur Nagusia.

(2) Ablitas, Altsasu, Azagra, Barañain, Berbintzana, Berriozar, Burlata, Lizarra, Funes, Uharte, Erriberri, Iruña, Azkoien, Ribaforada, Tafalla, Tütera, Valtierra eta Atarrabia.

(3) Altsasu, Burlata, Lizarra, Iruña.

(4) Altsasu, Barañain, Berriozar, Bortizirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Burlata, Lizarra, Gesalatz, Uharte, Los Arcos, Mendabia, Murchante, Iruña, Azkoien, Ribaforada, San Adrián, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

2. LEGE ESPARRUA

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I planak esparru honetan du oinarria:

Nazioarteko esparrua

1. *Nazio Batuen Gutuna* (San Frantzisko, 1945eko ekainaren 26a). Hauxe da erakunde honen xedeetako bat: nazioarteko lankidetzan aritzea nazioarteko arazo ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo humanitarioak konpontzeko, eta pertsona guztien oinarrizko giza eskubideen errespetua garatu eta sustatzea, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioa aintzat hartu gabe (1.3 artikulua).

2. *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*. Nazio Batuen Biltzar Orokorra 1948ko abenduaren 10ean aldarrikatua. Pertsonaren duintasunari eta osotasunari zor zaien errespetua adierazten du, sexuak eragindako bereizkeria guztien gainetik (1. eta 2.1 artikulua).

3. *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna*. (Nazio Batuak, New York, 1966ko abenduaren 19a). Itun honen bidez estatuak emakume eta gizonei berdintasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dute, eskubide zibil eta politikoen guztiez baliatzeari dagokionez (3. artikulua).

4. *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna*. (Nazio Batuak, New York, 1996ko abenduaren 19a). Estatuak itun horretan ezartzen diren eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztietan gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dute (3. artikulua).

5. *Emakumearen kontrako bereizkeria mota oro ezabatzeari buruzko konbentzioa (CEDAW)* Nazio Batuak, New York, 1979ko abenduaren 18a. Espainiak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen. Estatu sinatzaileei emakumearen kontrako bereizkeria debekatzeko neurriak, lege arlokoak eta bestelakoak, ezar zitzatela eskatu zitzaion. 1992an emakumeen kontrako bereizkeria ezabatzeko Komitea sortu zen, konbentzioa betetzen zela begira zezan.

6. *Nazio Batuen AG 48/104 Erab. Adierazpena, emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeari buruzkoa*, Batzar Orokorra Vienan aldarrikatua 1993ko abenduaren 20an. Adierazpen horretan emakumeen eta neskatoen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte alienaezina eta zatiezina direla aldarrikatzen da.

7. Nazio Batuen Giza eskubideei buruzko Mundu Konferentziak:

Giza eskubideei buruzko Mundu Konferentzia, Vienan egina, 1993ko ekainaren 14tik 25era. Bertan emakumeen eta neskatoen giza eskubideak giza eskubideen parte alienaezin eta zatiezina direla aitortzen da. Giza eskubideei buruzko Mundu Konferentziak (1993) bere egin zuen Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa (a/conf 157/23); bertan emakumeen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte direla aitortzen da.

Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziak (Kairo, 1994) bere egin zuen ekintza programa, zeinak azpimarratzen baitu genero arloan berdintasunean aurrera egitea, emakumearen jabeak eta emakumearen kontrako indarkeria oro desagertzea populazioaren eta garapenaren inguruko programen giltzarriak direla.

Garapen Sozialerako Munduko Goi Bilerak (Kopenhage, 1995) ekintza programa bat garatu zuen, non emakumearen kontrako indarkeria gogor salatzen baitu, bereziki umeen kontrako indarkeria, etxeko indarkeria eta bortxaketa.

8. Emakumeei buruzko Mundu Konferentziak. Mundu osoan aplikatzeko proposamenak dira eta nazioarteko beste tresna batzuen abiapuntu dira:

Emakumeei buruzko I. Mundu Konferentzia, Mexikon, 1975ean egina.

Emakumeei buruzko Nazio Batuen II. Konferentzia, Kopenhagen 1980an egina.

Emakumeei buruzko Nazio Batuen III. Konferentzia, Nairobin 1985ean egina.

Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia, Pekinen 1995eko irailaren 4tik 15era egina. Berdintasunari garrantzia handia eman zitzaion, bai eta sexuak eragindako bereizkeria baztertzeari. Beijingeko Adierazpena eta emakumeen eskubideak bermatzeko ekintza plataforma onetsi ziren.

– *New Yorkeko Konferentziak*. Pekingo Ekintza Plataformaren berrikuspina (Nazio Batuek 2000ko ekainaren 10ean eginiko Batzar Nagusia) eta ekintza plataforma hori garatzean izandako lorpen eta eragozpenen ebaluazioarena. Aho bateko iritzia izan zen genero indarkeria, bizitza pribatuan gertatzen bada ere, interes publikoko gaia dela. Aipatu zen halaber emakumeen kontrako indarkeriari heltzeko programa integralik ez dagoela, ez eta datu-rik ere, eta hori traba dela politika egokiak aztertu eta diseinatzeko, eta beharrezkoa dela indarkeria mota guztiei buruzko ikerketak bultzatzea, arrazoiak ezagutzeko eta ezabatzeko neurriak hartu ahal izateko. 2005. urtean Pekingo ekintza plataforman adostutako konpromisoak berrikusi ziren.

9. *Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak emaniko 1997/44 Ebazpena* (1997).

10. *Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena* (Europako Kontseiluaren ECHR). Erroma, 1950eko azaroaren 4a) (Espainiak 1977ko azaroaren 24an berretsia). 14. artikuluan berdintasunaren aldeko eta sexuak eragindako bereizkeria baztertzeko formula jasozten da espresuki.

11. *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko III. Ministroen Konferentzia* (Erroma, 1993ko urria). Emakumeen kontrako indarkeria borrokatzeko adierazpen politiko bat eta emakumeen kontrako indakeriari eta sexu gehiegikeriei buruzko ebazpen bat onetsi ziren.

12. *Europako Kontseiluaren Emakumeei eta Gizonei buruzko IV. Ministro Konferentzia*, Istanbulen 1997an egina; bertan, kide diren estatuei eskatzen zaie ekintza plan bat presta dezatela emakumeen kontrako indarkeria borrokatzeko.

13. *Europako Kontseiluaren Bigarren Goi Bileraren amaierako adierazpena*, Estrasburgon izenpetua 1997an; bertan estatuburuek eta gobernu-buruek emakumeek pairatzen duten indarkeriaren eta sexu esplotazioaren kontra borrokatzeko erabaki irmoa dutela adierazi zuten.

14. *Europako Kontseiluaren Ministroen Komitearen gomendioa, (2002)5, emakumeak indarkeriatik babesteari buruzkoa* (2002ko apirilaren 30ean hartua).

Europako esparrua

1. *Erromako Ituna* (1951ko martxoaren 25a), Europako Ekonomia Elkartea eratu zuena. 14. artikulua berdintasunaren eta sexuan oinarrituriko bereizkeria ezaren printzipioa ezartzen du. 114. artikuluan (lehengo 119.a) emakume eta gizonentzako tratu berdintasunaren printzipioa dago jasorik, lan berdina edo balio bereko lana betetzeagatik soldata berdina jasotzeko eskubide gisa.

2. *Europako Batasunaren Itunean* (Maastricht, 1992ko otsailaren 9a) adierazia dago, 6. artikuluan, berdintasunaren printzipioa ez dela eragozpen izanen estatu kideek ekintza positiboko neurriak hartzeko.

3. *Amsterdamgo Ituna* (Europar Batasuneko hamabost herrialde kideetako Kanpo Gaietako ministroek 1997ko urriaren 2an sinatua). Europar Batasunaren Itunaren 6. artikulua (lehengo F artikulua) aldatzen du, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetuaren printzipioa indartzeko. Xedapen berriak gehitzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz. Batasunaren helbu-

rutzat jotzen du bi sexuen berdintasuna (TCEEren 2. art.), generoko ikuspegia eransten die erkidego-ko jarduketa guztiei eta, zehazki, hau ezartzen du: "artikulu honetan aurreikusitako jarduera guztietan Erkidegoaren helburua izanen da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea" (TCEEren 3. art.), Kontseiluari eskumena esleitzen dio sexuan oinarritutako bereizkeria borrokatzeko ekintza egokiak gauzatzeko, eta ekintza positiboen erregulazioa sendotzen du lansari berdinen printzipioari dagokionez (TCEEren 141. art.).

4. *Europako Konstituzioa eratzen duen ituna*, Bruselako Europako Kontseiluak 2004ko ekainaren 18an erabakia. Genero berdintasunari dagokionez, 1. zatian, 2. artikuluan emakumeen eta gizonen berdintasuna Batasunaren balioetako bat dela dago jasorik, eta 3. artikuluan ezartzen da Batasunak sustatu egingen duela emakumeen eta gizonen berdintasuna.

5. Europar Batasuneko zuzentarauak:

– Kontseiluaren 75/117/EEE zuzentaraua, 1975eko otsailekoa. Kide diren estatuen legeriak elkarrengana hurbiltzea emakume eta gizonezko langileek lansari berdinak jasotzeko printzipioaren aplikazioaren arloan.

– Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua, 1976ko otsailaren 9koa. Lana izateko, prestakuntzarako eta lanbide aurrerapenerako aukerak eta lan baldintzak emakumeentzat eta gizonentzat berdinak izateko printzipioaren aplikazioari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE Zuzentarauak, 2002ko irailaren 23koak, aldatu zuen.

– Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentaraua, 1978ko abenduaren 19koa, emakumeek eta gizonen Gizarte Segurantzaren arloan tratu berdina izateko printzipioa aplikatzen joateari buruzkoa.

– Kontseiluaren 86/378/EEE Zuzentaraua, 1986ko uztailaren 24koa, emakumeek eta gizonen Gizarte Segurantzaren lanbide araubideetan tratu berdina izateko printzipioaren aplikazioari buruzkoa. Kontseiluaren 1996ko abenduaren 20ko 96/97/EE Zuzentarauak aldatu zuen.

– Kontseiluaren 86/613/EEE zuzentaraua, 1986ko abenduaren 11koa, jarduera autonomo batean, nekazaritza barne, aritzen diren emakumeek eta gizonen tratu berdina izateko printzipioaren aplikazioari buruzkoa, eta amatasunaren babesari buruzkoa.

– Kontseiluaren 92/85/EEE Zuzentaraua, 1992ko urriaren 19koa, haurdun dagoen, erditu berria den nahiz bularra ematen duen emakume

langilearen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurrien aplikazioari buruzkoa.

– Kontseiluaren 97/80/EE Zuzentaraua, 1997ko abenduaren 15ekoa, sexuan oinarritutako bereizkeria kasuetan frogak duen garrantziari buruzkoa. Kontseiluaren 1998ko uztailaren 13ko 98/52/EE Zuzentarauakaldatau egin zuen.

– Kontseiluaren 97/81/EE Zuzentaraua, 1997ko abenduaren 15ekoa, lanaldi partzialeko lanari buruzko esparru-akordioari buruzkoa, familia eta lana bateragarriak egiteko xedea duena.

Kontseiluaren 2004/113/EE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, ondasunez eta zerbitzuez baliatzean eta horien horniduran emakumeek eta gizonen tratua berdina izateko printzipioaren aplikazioari buruzkoa.

6. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 806/2004/EE Erregelamendua, garapenerako lan-kidetzaren arloan gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeari buruzkoa. Politika guztietan generoko ikuspegia integratzeko printzipioa aplikatzea da haren xedea.

7. Aintzat hartu beharreko beste lege tresna batzuk:

– 84/635/EEE Gomendioa, 1984ko abenduaren 13koa, emakumeen aldeko ekintza positiboak sustatzeari buruzkoa.

– Europako Parlamentuaren ebazpena, 1986ko ekainaren 11koa, emakumeen kontrako erasoei, pertsonen duintasuna babesteari eta emakumeen kontrako indarkeriak dakarren giza eskubideen urraketari buruzkoa.

– Erkidegoko Eskubide Sozialen Gutuna, Strasburgoko Europako Kontseiluak 1989ko abenduaren 9an onetsia. Besteak beste, gizon eta emakumeentzako tratua berdintasuna jasotzen du.

– Europako Batzordearen gomendioa, 1991ko azaroaren 27koa, lanean gizon eta emakumeen duintasuna babesteari eta sexu jazarpenera borrokatzeko neurrien gaineko jokabide kodeari buruzko neurriak hartzen zituen.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Europar Batasunaren IV. Ekintza Programa (1996-2000). Aukera berdintasuna zeharka integratzea Batasuneko estatuak gauzatzen dituzten politikan, hau da, “*mainstreaming*” izenekoa, azpimarratuz beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua erabakiak hartzean eta botere esfera guztietan. Emakumeen kontrako indarkeriaren azarora nabarmentzen du.

– Europako Parlamentuaren ebazpena, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean tolerantziarik ezari buruzko 1997ko kanpaina baten inguruan, Emakumeen Giza eskubideei buruzko Batzordearen A4-0250/97 Txostenean oinarriturik.

– Daphne ekimena, 1997an. Adingabeen, nerabeen eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako neurriak sustatzeko xedea duen berriazko programa.

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 293/2000/EE Erabakia, 2000ko urtarrilaren 24koa, Europar Batasunaren ekintza programa onesten duena (Daphne programa 2000-2003), hurren, nerabeen eta emakumeen kontrako indarkeria borrokatzeko prebentzio neurriari buruzkoa.

– 335 COM (2000), 2000ko ekainaren amaierakoa. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Erregioen Batzordeari igorritako Komunikazioa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europar Batasunaren esparru-estrategia baterantz. Emakumeen eta gizonen artean bizitza ekonomiko, politiko, zibil eta sozialean dagoen berdintasun ezari kontra egiten laguntzea du helburua, generoko ikuspegia integratuz Erkidegoko politika guztietan eta emakumeen aldeko ekintza berriazkoak abian jarri.

– Kontseiluaren 2001/51/EE Erabakia, 2000ko abenduaren 20koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Europar Batasunaren esparru-estrategiari buruzko V. Ekintza programa ezarri zuena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan Europar Batasunaren esparru-estrategia globala gauzatzeko behar diren tresnetako bat da. Indarkeria barne hartzen da, giza eskubideen eta oinarriko askatasunen erabateko erabilerarekin loturik. Programaren aurreikuspenetako bat berdintasun politiken eraginkortasuna ziurtatzeko ekintzak sartzea da, eta horien artean genero indarkeriaren prebentzio eta zehapen neurriak.

Ministroen Komitearen 2002ko apirilko gomendioa, emakumea indarkeriatik babesteari buruzkoa, eta hezkuntza nahiz prestakuntza esparruetan neurriak proposatzen dituen, komunikabideetan, herri, hiri, erregio eta abarretako planifikazioan eta abarretan.

– Europako Parlamentuko 803/2004/EE Erabakia, Erkidegoko Ekintza Programa bat onesten duena (2004-2008), hurren, gazteen eta emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartu eta aurka egiteko eta biktimak eta arrisku taldeak babesteko. (Daphne II programa)

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 848/2004/EE Erabakia, Erkidegoko ekintza programa bat ezartzen duena emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Europan aritzen diren erakundeak sustatzeko.

– COM (2005) 224, AMAIERAKOA, Brusela, 2005eko ekainaren 1ekoa. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Erregioen Batzordeari igorritako Komunikazioa. Bereizkeriaren kontra eta guztientzako aukera berdintasunaren aldeko esparrustrategia. Europako Batzordearen ekimena, 2007. urtea guztientzako aukera berdintasunaren Europako Urte deklaratzeko duena.

Estatuko esparrua

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. 1. artikulua “Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”. 14. artikulua “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta;” eta 9.2 artikulua “Botere publikoek dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere”.

2. Azaroaren 5eko 39/1999 Legea, langileen familia eta lana bateratzea sustatzeko.

3. Apirilaren 2ko 7/1.985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

4. Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Lege-Dekretua, Langileen Estatutua onesten duena.

5. 1251/2001 Errege Dekretua, Familia eta Lana Bateratzeko Legea zati batean garatzen duena.

6. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzkoa. Lege organiko horren helburua emakumeek jasaten duten indarkeriari erantzun globala ematea da, bai eta garatzeko arauak ezartzea ere.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparrua.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

2. 6/1.990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Toki Administrazioari buruzkoa.

3. 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa, martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legeak aldatua.

4. 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko.

5. Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa (52.1 eta 53.2 artikulua. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunean izanen den eraginari buruzko txostenak).

6. Abuztuaren 3ko 177/1995 Foru Dekretua, Nafarroako Emakumearen Institutua erakunde autonomoa sortzen duena, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari atxikirik.

7. 398/1995 Foru Dekretua, irailaren 25ekoa, Nafarroako Emakumearen Institutuaren estatutuak onesten dituena.

8. 46/2005 Foru Dekretua, otsailaren 24koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.

9. Martxoaren 8ko 351/1996 Foru Agindua, Nafarroako Emakumearen Kontseilua nola osatu den eta nola jardungo zuen ezarri zuena.

3. PLANAREN HELBURUAK

Aukera Berdintasunerako planaren garapenerako ildoak diren helburuak adieraztean jarduteko bi esparru nagusi bereizten dira: erakunde publikoak eta Nafarroako gizartea.

ERAKUNDE PUBLIKOAK

1. Helburu orokorra:

Zeharkako politikak eta ekintza positibokoak sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna egiazkoa eta erreala izatea ahalbidetuko duten baldintza eta egitura sozialak sortzen laguntzeko.

2. Xede berariazkoak

- Nafarroako Gobernuako departamentu guztietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko konpromisoari buruzko eztabaida eta hausnarketa instituzionalerako prozesuari ekitea.

- Foru Gobernuako departamentu bakoitzaren politiken diseinuan eta kudeaketan generoko ikuspegia txertatzeko tresnak eskaintzea.

- Nafarroako Gobernuako departamentuak inplikatzea neurriak abian jar ditzaten, eskumen arloei begiratuta.

- Toki entitateentzat erreferentea izatea aukera berdintasunaren arloan, bakoitzak berdintasunaren arloan dituen eskumenak egiaz betetzen lagundu, bultzatu eta bideratuko duten neurriak ezarri.

- Toki entitate bakoitzaren planifikazio estrategikoan eta udal arloetan generoko ikuspegia txerta dadin sustatzea.

- Herri eta udaletan berdintasun politikak kudeatzeko erreferentziatzeko esparru bat sortzen laguntzea, maila instituzional horretan eskura ditzuten baliabideak erabiliz: udal ordenantzak, toki aurrekontuak, berdintasunaren arloko teknikariak, berdintasunerako toki planak.

NAFARROAKO GIZARTEA

1. Helburu orokorra:

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna erdiestea bermatuko duen aldaketa sozialeko prozesuko buruan egoitea.

2. Xede berariazkoak

- Emakumeen egoera ezagutzea eta gehien eragiten dieten desberdintasun egoerak zein diren nabarmentzea, gizataldeen aniztasuna kontuan harturik.

- Gizonen eta emakumeen esparru publikoan eta pribatuan duten partaidetza eta erabilera desberdinek dakarten desoreka identifikatzea.

- Aipatutako esparru horietako edozeinetan egiazko berdintasuna lortzea eragozten duten trabak identifikatzea.

- Jarduera arlo bakoitzean aukera berdintasunak duen egoera eta bilakaera neurtzeko adierazleak ezartzea.

- Ezarritako jarduera arlo bakoitzean ekintza neurri zehatzak ezartzea, Nafarroako emakumeen bizi kalitatea hobetzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna murrizteko xedez.

- Nafarroako Foru Komunitateko gizarte eragile nagusiak inplikatzea ekintza positiboko neurriak diseinatzen eta abian jartzen.

- Nafarroako emakumeen bizi kalitatea hobetzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean gizonen ere erantzukizuna beren gain hartzea beharrezkoa dela agerian uztea.

- Nafarroako gizartean Foru Komunitateko emakume eta gizonen artean dagoen aukera berdintasunaren egoerari buruzko eztabaida irekitzea; eta herritarrek kontzientziatzea denok batera konpromisoa hartu beharraz, hobera egiteko eta berdintasuna lortzeko aldaketa errazteko.

XEDE-HARTZAILEAK

Helburu hauek agenda politikoan sartzeko erantzukizunak dakarren testuinguruan hiru xedehartzaile desberdin hartu behar dira kontuan:

Foru eta toki administrazioak, desberdintasuna desagertzea berariaz eta gizon eta emakumeengan edozein neurri edo programak duen eragina eta irispena zeharka aurreikusi behar duten politikak betetzeko ardura duten aldetik.

Azken urteotako foru araudiak erakusten du zer-nolako ahalegina egin den emakumeen eta gizonen berdintasun erreala gauzatzeko legeria indardunaren esparruaren barranean.

Arau esparru hori toki esparrura ere zabaldu da. Azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legean, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoan, aipatzen denez, bete beharreko neurrietako bat da "Nafarroako udaletan emakumearen zinegotzigoak sortzea eta genero berdintasunaren aldeko jarduerak betetzea sustatuko da, kanpaina eta bestelako baliabideak erabiliz, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean".

Toki esparrua herritarren eguneroko bizitzatik eta sare ekonomiko eta sozialetik gertuen dagoe-

na da. Esparru horretan, beraz, haien interesak eta beharrak gertuago daude. Modu zuzenagoa da, beraz, lurraldean dauden balizko baliabideak kontuan hartzeko eta, hasiera batean behinik behin, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna integratzeko esparru egokienetako bat da.

Ildo horretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 28. artikuluan adierazten da "udalek beste administrazio publikoek betetzen dituztenen jarduera osagarriak betetzen ahalko dituztela, bereziki emakumearen sustapenaren arloan"

Komunikabideek eta mundu sozial, ekonomiko eta enpresarialeko eragileek beste talde bat osatzen dute, planaren neurrien eta ekintzen helburu dena, horiek ere erantzukizuna eta inplikazioa dutelako herritarren arteko kontzertazio sozia-

lerako, sentsibilizaziorako eta parte-hartzerako guneak sortzen.

Nafarroako gizarte osoa, gizon-emakumeak, haien aniztasuna alde batera utzi gabe aukera izan behar dutenak eskubideez eta baliabideez berdintasunez gozatzeko, eta bizitzaren esparru guztietan boterea eta erantzukizuna partekatzeko.

PLANAREN INDARRALDIA

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planaren indarraldia bost urtekoa da, 2006tik 2010era. Hala ezarri da, beharrezkoa baita, prozedura berrien egonkortasunaren, ikasteko prozesuaren eta gaitzuntza teknikoaren lagungarri izan daitezen, etengabe aldaketak bultzatzea, bai eta lortutako berdintasunaren epe ertaineko ebaluazioa egitea ere.

4. HEDAPENA, EZARPENA, SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

4.1. HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Indarraldiko lehen urtean komunikazio plan bat diseinatuko da, eta berdintasun plana garatzen den bitartean erabiliko. Komunikazio planaren helburua aurreko atalean aipatutako xede-hartzaileen artean berdintasun planaren berri ematea eta hedatzea da. Hainbat komunikazio ekintza beteko ditu, honako **hauei zuzenduak: foru eta toki administrazioa, foru gobernuko eta erakunde autonomoetako departamentuetako teknikariak eta zuzendaritzako langileek berebiziko garrantzia baitute mintzakide gisara**, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, toki entitateak, Nafarroako Emakumearen Kontseilua, udaletako berdintasun kontseiluak eta Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten talde politikoak.

Komunikabideei eta gizarte eragileei dagokiez, plana Nafarroako komunikabide guztiei aurkeztuko zaie. Plana Nafarroako Foru Komunitateko eragile ekonomiko, politiko, sozial eta kulturelei aurkezteko ekitaldiak eginen dira, bereziki plana egiten parte hartu dutenentzat.

Plana Nafarroako gizarteari prentsaurreko baten bitartez aurkeztuko zaio, eta aldizka informazioa emanen zaio planaren garapenaz eta ebaluazioaz.

4.2. EZARPENA

Plan honen ezarpena egokia dela bermatzeko, neurriak ezarriko dira arlo hauen inguruan: **urteko aurrekontuak, antolamendua eta lan planak**.

Plana garatzeko nahitaezkoak diren hiru aspektu horiekin batera, **lidergo politikoa** faktore garrantzitsua izanen da ezarpen egokia bermatzeko.

Zeharkako ekimena den aldetik, planak departamentuen arteko koordinazio ona behar du, baita departamentuen eta Nafarroako udalen artean ere. Era berean, lan koordinatuko bilguneak eta esparruak sendotzea plana abian jartzeko baldintza da.

Aurrekontua

Nafarroako Gobernuak, departamentuetako bakoitzaren bidez, bere eskumenen esparruan planifikatutako jarduketak betetzeko aurrekontu neurriak hartuko ditu.

Nafarroako Emakumearen Institutuak kudeatu eta bultzatuko ditu sustapenari, lan batzordeak ezartzei, hasierako prestakuntzari eta zabalkunde eta komunikazioari buruzko jarduketak, Nafarroako

Gobernuko Prestakuntza, Prentsa eta Komunikazio zerbitzuekin lankidetzan. Indarraldiko lehenbiziko urtean eta urtean behin departamentu bakoitzak behar diren giza eta finantza baliabideak atxikiko dizkio urteko planen betetzei.

Planaren organoak

Planak teknikari talde bat izanen du hura bultzatu eta haren jarraipena egiteko, zenbait organo eta erantzukizun maila desberdinetan antolatuz.

Planaren zuzendaritza kontseilua

Planaren zuzendaritza kontseilua, NEIren Gobernu Kontseiluaren parekoa, plana zuzentzeko organo gorena izanen da, urteko lan planak onesteko eta haren jarraipena egiteko eginkizunekin.

Bilkura arruntak eginen ditu urtean bi aldiz eta bilkura bereziak, berriz, planaren betetze-organoei hala eskatzen dutenean. Planaren zuzendaritza kontseiluko kideak NIEren gobernu kontseilua osatzen duten pertsonak izanen dira. Gaur egun, hauek dira kideak:

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria
- Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzailea
- Gobernuko departamentu hauetako zuzendariak: Lehendakaritza, Justizia eta Barnekoa, Toki Administrazioa, Gizarte Ongizatea, Lana, Kultura, Hezkuntza, Osasuna, Kirola.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkaria.

Departamentuarterko eta erakundearterko mahai teknikoa

Planaren Organo Betearazlea. Nafarroako Emakumearen Institutuak koordinatuko du, eta hauxe izanen du bere ardura: urteko lan planak diseinatzea, eta departamentu bakoitzeko ekintzak bete daitezela sustatu eta koordinatzea. Gobernuko departamentuetako teknikariek osatuko dute, zuzendaritza nagusiek aukeratuak.

Mahai honetan udalek ere parte hartzea hartzen ahalko da kontuan.

Departamentu bakoitzak izendatutako pertsonak zerbitzuetan ekintzak koordinatu eta sustatzeko ardura izanen dute, eta prestakuntza, aholkularitza eta abarretako premiak identifikatuz, modu egokian ezar daitezten.

Nafarroako Emakumearen Institutuak sostengua emanen dio Mahai Teknikoaren eta Gobernuko departamentuetako langileen lanari. Ekintzak abian jartzeak dakartzan arazoak gainditzen

lagunduko du, beharrak entzuteko lan jarraitua eginez. Metodologia berariazkoak diseinatzea, prestakuntza, kontrastea eta aholkularitza izanen dira bere lan tresna nagusiak, eta egokia irudituz gero kanpoko teknikariak ere hartzen ahalko dira.

Lan programa

Kontuan harturik planaren indarraldia bost urtekoa dela, helburuak eta ekintzak urteko lan planen bidez garatuko dira.

Horietan islatuko da gobernuko departamentu bakoitzak duen konpromiso maila.

Urteko lan planak Planaren zuzendaritza kontseiluak (NEIko gobernu kontseiluak) onetsiko ditu, departamentuartereko eta erakundeartereko mahai teknikoak proposaturik.

4.3. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. planean (2006-2010) jasotako helburuek eta ekintzek, eta plana abian jartzeak dakartzan egiturek ebaluazio prozesu bat behar dute, planteatutako jarduketan betetze maila eta Nafarroako gizartean duten eragina neurtzeko.

Ebaluazioa etengabeko hobekuntza prozesu baten barrenean pentsaturik dago, ekintzak garatu ahala. Ildo horretan, ebaluazioa beharrezko tresna da oztopoei eta beharrei antzemateko eta, egokia denean, horiek berregokitzeko.

Plana onetsi ondoren, ebaluazio prozedura eta haren une nagusiak ezarriko dira.

Urteko planen ebaluazioa

Urteko lan planetan ezarririk geldituko dira, ekintzekin batera, horiek betetzeko aurrekontuak, zerbitzuak eta aduradunak, betetze maila egiazta- zeko **adierazleak**, emaitzak eta eragina, analisi kuantitatiboak eta kualitatiboak barne.

Urte amaieran, Nafarroako Emakumearen Institutuak, Gobernuko departamentuek emandako datuak kontuan harturik, ebaluazio **txosten** bat prestatuko du.

Berdintasun Planaren azken ebaluazioa

Plana betetzeko azken urtean, kanpoko ebaluazioa eta azken txostena eginen dira, xede hauekin:

- Aurreikusitako ekintzak nola bete diren jakitea eta ezarritako helburuekiko duten egokitasun mailaren berri izatea.
- Planaren betetze-mailari buruzko informazioa ematea.
- Planak Nafarroako gizartean izan duen eraginare berri izatea.
- Lan prozesuen eta egituren alderdi ahulak eta indartsuak atzematea.
- Bigarren Berdintasun plana egiteko behar adina informazio eskuratzea.

Horrez gainera, plana garatu bitartean egindako ikerketetan eta azterlanetan oinarriturik lortutako datuak eta informazioa hartuko dira kontuan azken txostenean.

5.- JARDUERA ARLOAK

Berdintasun plana hamabi arlotan dago egituraturik; lehendabiziko biak zeharkakoak dira eta beste hamarrek esku-hartze berariazkoa dutenak. Arloz arloko banaketa hori egiteko abiapuntua garrantzizko gaiak edo departamentuen jarduera arloak izan dira. Honako hauek dira:

ZEHARKAKO ARLOAK:

1. Aukera berdintasunaren printzipioa administrazio publikoetan txertatzea.
2. Informazioa, komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa.

BERARIAZKO ARLOAK:

1. Sustapen ekonomikoa, enplegua eta prestakuntza
2. Lurralde antolamendua eta etxebizitza
3. Hezkuntza eta sustapena
4. Osasuna eta Gizarte Ongizatea.
5. Kultura, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea
6. Herrietako emakumeak
7. Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea
8. Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa
9. Emakumeen kontrako indarkeria
10. Garapenerako lankidetzak.

ZEHARKAKO 1. ARLOA

ZEHARKAKO 1. ARLOA. AUKERA BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN TXERTATZEA

SARRERA

Berdintasunaren printzipioa administrazio publikoetan integratzea Europako Kontseiluak berdintasuna egiazko eta erreala izan dadin proposatzen dituen estrategietako bat betetzearen ondorio da: zeharkakotasuna edo *mainstreaming* izeneko.

Hau da estrategia horren definizioa: "prozesu politikoak berrantolatu, hobetu, garatu eta ebaluatzea, prozesu horiekin zerikusia izan ohi duten aktoreek genero berdintasunaren ikuspegia erants diezaieten politiken maila eta fase guztiei" (Europako Kontseilua, 1998).

Alde horretatik, erkidegoko politika guztietan, haien planifikazioari, garapenari, aurrekontu kudeaketari eta ebaluazioari begira, sistematikoki hartuko dira aintzat gizonen eta emakumeen artean nolako desberdintasunak dauden baldintzei, egoerei eta beharrei dagokienez.

Administrazio publikoek eredu izan behar dute aukera berdintasunaren errespetuari dagokionez, eta haietan, beraz, antolakuntza eta lan kultura gai izanen da genero desberdintasunei antzemateko eta egokia bertan lan egiten duten gizon eta emakumeen premietarako.

Arlo honetan, besteak beste, hauek dira garatu beharreko neurriak: administrazio publikoetako giza eta gauza baliabideei gaitasun teknikoa eta prestakuntza ematea eta horiek egokitzea, bai eta berdintasunaren eta generoaren arloan espezializatutako egiturak edo unitateak sortzea ere.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.
- Toki Administrazioako Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia
- Hezkuntza Departamentua
- Kultura eta Turismo Departamentua.
- Osasun Departamentua
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.
- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Emakumearen Institutua

BERDINTASUN EGITURAK ETA ARLOAK

1.1. helburua. Komunikazio sistemak ezartzea administrazio publikoen eta Nafarroako Emakumearen Institutuaren artean, Nafarroako Foru Komunitatean berdintasun politikak bultzatu, aholku eman, planifikatu eta ebaluatzeko ardura duen erakundea den aldetik.

1.1.1. ekintza. Plana abian jartzeko behar diren batzordeak sortzea eta horietako kideak eta jarduteko araubidea zein diren ezartzea.

1.2. helburua. Foru eta toki administrazioko departamentuetan berdintasun politiken arduraren izanaren egitura, atal, unitate edo arlo administratiboak ezartzea; horien kargu politikoak eta teknikariak izanaren dira, gainera, zuzeneko mintzakide lanetan arituko direnak Nafarroako Emakumearen Institutuarekin.

1.2.1. ekintza. Departamentuetako bakoitzean pertsona batzuk izendatzea plana betetzeko arduradun eta mintzakide izan daitezzen Nafarroako Emakumearen Institutuarekin.

1.2.2. ekintza. Berdintasun politiken unitate administratibo funtzionalak sortzea.

ADMINISTRAZIO ETA ARAU ANTOLAKUNTZA

1.3. helburua. Administrazio publikoen antolakuntzan generoko ikuspegia txertatzea.

1.3.1. ekintza. Administrazio publikoen kalitate, hobetze eta modernizazio proiektu eta planei generoko ikuspegia eranstea.

1.3.2. ekintza. Erakunde publikoetako zuzendaritza postuetan, kontseiluetan eta batzordeetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin sustatzea.

1.4. helburua. Administrazio publikoen araudia eta jarduketa berdintasunaren printzipiora egokitzea.

1.4.1. ekintza. Administrazioak duen jarduketa desberdinaren eta herritarrekin dituen harremanen arauak aztertzen joatea, berdintasunaren printzipiora egokitzeko, honako gai hauetan, besteak beste: kontratazioak, beka, laguntza edo dirulaguntza deialdiak, hitzarmenak, zerbitzu publikoak eskura izan eta erabiltzea, enplegu publikoaren eskaintzak, zinpeko epaimahaiak, epaimahaiak etab.

1.4.2. ekintza. Nafarroako Gobernuko departamentuei behar duten metodologia eta laguntza ematea, arauak egiteko prozesuan gizon eta emakumeen arteko berdintasunean izanaren duten eraginari buruzko txostenak kontuan har ditzaten, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2003 Foru Legean jasotakoa betez.

1.4.3. ekintza. Aholkularitza, orientazio materialak eta beste baliabide batzuk ematea hizkera administratiboa sexista izan ez dadin.

LANGILEEN SENTSIBILIZAZIOA ETA GAIKUNTZA

1.5. helburua. Kargu politikoak eta teknikariak sentsibilizatzea eta gaitzea berdintasunaren printzipioa txertatzeko.

1.5.1. ekintza. Berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea planak diseinatu eta betetzea, foru eta toki administrazioetako kargu politikoentzat bereziki.

1.5.2. ekintza. Aukera berdintasunaren arloan pausoz pausoko prestakuntza oinarritzko eta etengabea bermatuko duten bideak ezartzea teknikarientzat, halako moduan non bermatuko baitu jardun administratiboari generoko ikuspegia integratzeko gai direla.

1.5.3. ekintza. Zuzendaritzako lanpostuetan ari direnak trebatzea erabakiak hartzeko prozesuari generoko ikuspegia erants diezaioten.

1.5.4. ekintza. Administrazio publikoetako langileei materialak, gidak eta beste tresna batzuk ematea, edukiak haien eginkizunek eta eskumenek dituzten beharretara moldaturik.

1.5.5. ekintza. Profesionalen arteko lan eta lan-kidetza sareak sor daitezela bultzatzea, lagungarri izan daitezzen jokabide egokiak zabaltzen, ikasten eta esperientzia eta metodologia trukatzeko.

GENEROKO IKUSPEGIA AURREKONTUE-TAN

1.6. helburua. Nafarroako aurrekontuak generoko ikuspegi batetik aztertzea, prestatzen direnean, epe ertainean eta luzean, ikuspegi hori txertatzeko.

1.6.1. ekintza. Nafarroako aurrekontuek, foru administrazioetako nahiz toki entitateetakoek, egin beharreko kontribuzioari buruzko informazioa identifikatu eta ematea, politika publikoak zuzentasunez, eraginkortasunez, efizientziaz eta gardentasunaz hornitzen dituen estrategia baita, programa guztietan gehienbat pertsonen zuzenean eragiten dieten adierazleak kontuan hartuz.

1.6.2. ekintza. Departamentuek Nafarroako elkartei emandako dirulaguntzak eta haiekin izenpetutako hitzarmenak aztertzea emakumeek funts publiko horiek eskuratzen dituzten identifikatzeko eta baloratzeko.

1.6.3. ekintza. Generoko ikuspuntua aurrekontuaren alderdi puntual batzuetan islatzea, eta pausoz pauso aztertzen joatea (epe laburrean, ertainean eta luzean) gastu publikoari, dirusarrerei eta zerga onurei dagozkien alderdiak.

ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK

1.7. helburua. Informazioaren bilketari, prestatari eta zabalkundeari generoko ikuspuntua eranstea.

1.7.1 ekintza. Emakumeen eta gizonen egoerari eta plan honen helburuekiko duen bilakaerari buruzko ikerketak eta estatistikak egin eta zabaltea.

1.7.2. ekintza. Sexuaren aldagaia modu sistematikoan eranstea estatistiketan, programen segimendurako datu baseetan eta departamentuetako eskumen esparru bakoitzeko datuen bilketan, eta zenbait eragiketa estatistikotan herri/hiri aldagaia ere sartzea.

1.7.3. ekintza. Hirugarren entitateek egin beharreko azterlanak, ikerketa proiektuak, txostenak, argitalpenak eta publizitatea adjudikatzeko baldintza orrietan betebeharrak bat jartzea, generoko ikuspegiaren araberrako azterketa kontuan hartu dela bermatuko duena, entitate horien izaera dela-eta beharrezkoa denean.

1.7.4 ekintza. Zerga kontribuzioko datu desagregatuak Nafarroako emakumeen egoera ezagutzeko garrantzizko informaziotzat hartzea.

BERDINTASUN POLITIKAK TOKI ADMINISTRAZIOAN

1.8. helburua. Nafarroako toki entitateen konpromisoa bultzatzea emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren arloan.

1.8.1 ekintza. Berdintasun plana zabaltzea toki entitateetan, eta toki administrazioari informazioa eta aholkua ematea berdintasunaren arloan dituen eskumenak eta erantzukizunak garatzeko.

1.8.2 ekintza. Udalek foru planaren proposamenak zehaztuko dituzten berdintasun planak egin eta ones ditzaten bultzatzea, laguntza eta lankidetzak bideak ezarriz, eta proposamen horiek kasuan kasuko toki entitatearen errealitateari eta beharretara egokiturik.

1.8.3. ekintza. Toki garapena lehentasuntzat hartzea eta, beraz, planaren ekintza guztiek hari erantzutea.

1.8.4 ekintza. Erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, xedea izanik jokabide egokiak hedatu eta trukatzeko Nafarroako Foru Komunitateko nahiz Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetako eta Europako erregioetako esparruetan eta horietan gauzatutako programetan generoko ikuspegi txertatzeari dagokionez.

1.8.5 ekintza. Emakumearen edo Berdintasunaren Zinegotzigoak sortzen, berdintasun teknikariak kontratatzen eta udal berdintasun-kontseiluak eratzten laguntzea eta haiek bultzatzea.

ZEHARKAKO 2. ARLOA

INFORMAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA

SARRERA

Aukera berdintasuna lortzeko prozesuan herritarrak sentsibilizatzea eta informatzea funtsezko baliabideak dira sinEsmen eta estereotipo sexistak gainditzeko. Baliabide horiek lagungarri izanen dira, gainera, jarrerak aldatzeko eta gizartea jabe dadin emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lan egin behar dela, berdintasun politikak gauzatzea erraztu eta indartu egiten baitute.

Komunikabideek eginkizun sozial garrantzitsua betetzen dute, haiek beste inork bete ez dezakeena: hots, libre izateko behar diren informazioa eta ikuspuntuak ematea jendeari.

Gure gizartean, emakumeek pairatu duten bazterkeria dela eta, gizonetikiko duten desberdintasun egoera agerikoa da komunikazioaren arloan ere.

Herritarrentzako informazio, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak diseinatu eta zehazteko garaian, kontuan hartu behar da garrantzitsua dela gizonari zein emakumeari zuzentzea, gizonari ere bai, gizonak garrantzitsuak baitira emakumeengana portaera eta jarrera sexistak gainditzeko aldaketa eragile izan daitezkeen aldetik.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.
- Kultura eta Turismo Departamentua.
- Toki Administrazioiko Departamentua
- Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

2.1. helburua. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan jokabide egokiak eta balioak transmititzea eta hedatzea.

2.2. helburua. Komunikabideek eta publizitateak emakumeen irudi estereotipatu eman dezaten ebitatzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

2.1. helburua. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan jokabide egokiak eta balioak transmititu eta hedatzea.

2.1.1. ekintza. Rol eta estereotipo sexistei buruzko ikerlanak egitea eta haien emaitzak zabaltzea.

2.1.2. ekintza. Hizkera sexista zuzentzeko tresnak prestatzea.

2.1.3. ekintza. Erakusketa ibiltariak egitea emakumei buruz, haiei buruzko irudia anitzagoa izan dadin eta garapen sozialari egiten dioten ekarpena ikusarazteko.

2.1.4. ekintza. Emakumei buruzko argitalpenak egitea eta argitaratzen laguntzea, bereziki estereotipo sexistak ezabatzeko xedea dutenak.

2.2. helburua. Komunikabideek eta publizitateak emakumeen irudi estereotipatua eman dezaten ebitatzea.

2.2.1. ekintza. Komunikabideen bitartez emakumeen aurrerapausoak eta lorpenak zabaltzea.

2.2.2. ekintza. Herritarrei zuzendutako informazio kanpainak egitea generoko estereotipoek eta rolek irauteak gizartearen esparru guztietan dakartzan ondorioei buruz, publizitate kanpaina eta iragarki sexistei antzemateko eta haiek salatzeko.

2.2.3. ekintza. Administrazio publikoetako eta komunikabideetako prentsa eta publizitateko profesionalen prestakuntzari laguntza ematea emakumei buruzko albisteek eta irudiak tratamendu egokia izan dezaten.

2.2.4. ekintza. Jarraibideak eta irizpideak ezartzea komunikabideek transmititzen dituzten mezuetatik indarkeria edo bereizkeria mota oro ezabatzeke.

2.2.5. ekintza. Jokabide egokien gida prestatzea, administrazio publikoetako prentsa eta publizitate zerbitzuei eta komunikabideei zuzendua, informazioaren eta hizkuntzaren tratamendu ez-sexista bermatzeko.

2.2.6. ekintza. Administrazio publikoetako eta komunikabideetako publizitatea eta kanpainak kontratatzeke baldintzen agirietan emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren inguruko adierazleak baloratzea.

1. ARLOA

SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

SARRERA

Europar Batasuna eratzeko Itunaren 141. artikuluan (lehenengo 119. artikuluan), Amsterdamgo Itunaren aldaera bateratua, jasoa dagoenez, enplegua eta lana lortzeko aukera berdintasuna egitate bihurtu behar da eta, beraz, emakumeen sustapen ekonomikoa, enplegua eta prestakuntza kontuan hartu behar dira emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko zutabe funtsezkoa diren aldetik.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko azken urteetan egindako urrats garrantzitsuenetako bat emakumeak lan merkatuan sartzea izan da. Baina esparru horretan berdintasuna lortzeko nahitaezkoa da enpresek eta beste gizarte eragile garrantzitsu batzuek modu aktiboan parte hartzea, segregazio bertikal nahiz horizontaleko egoerak desagerrarazten laguntzeko eta sortuko den enpresa-kultura berria gizonen eta emakumeen erantzukizunekin bateragarria izan dadin, eta haien garapen profesionalerako baliagarri.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean.

- Industria, Merkataritza eta Turismo Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua.
- Toki Administrazioko Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua.
- Udalak eta mankomunitateak
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

1.1. helburua. Nafarroako emakumeek eta gizonen ekonomiaren eta enpleguaren arloan duten desberdintasun egoera ezagutu eta ikusgai jarritzea.

1.2. helburua. Enplegurako politikak eta zerbitzuak aukera berdintasunaren printzipiora egokitzea.

1.3. helburua. Nafarroako emakumeek lanpostu egonkorra berdintasunez eskura ditzaten sustatzea.

1.4. helburua. Emakumeek lan merkatuan berdintasunez iraun eta aurrera egin dezaten sustatzea

1.5. helburua. Negoziazio kolektiboari generoko ikuspuntua eranstea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

1.1. helburua. Nafarroako emakumeek eta gizonek ekonomiaren eta enpleguaren arloan duten desberdintasun egoera ezagutu eta ikusgai jartzea.

1.1.1. ekintza. Nafarroako egoera ekonomikoaren berri izateko egiten diren azterlan eta azterketa guztiei generoko ikuspuntua eranstea.

1.1.2. ekintza. Sexuaren aldagaia modu sistematikoan txertatzea enpleguaren eta sustapen ekonomikoaren esparruarekin zerikusia duten estatistika, datu base, informazio bilketa guztietan eta abarretan.

1.1.3. ekintza. Generoko ikuspuntutik aztertzea Nafarroako Foru Komunitatean arautu gabeko lanetan edo ezkutukoetan aritzen diren pertsonen egoera.

1.1.4. ekintza. Hausnarketaren eta ikerketaren alde egitea eta neurri zuzentzaileak ezartzea, lana eta familia batera aurrera eramaten laguntzeko edo emakumeak laneratzeko edo aurrera egiteko neurriek edo pizgarriek, epe ertain nahiz luzekoek, okerreko ondoriorik izan ez dezaten.

1.2. helburua. Enplegurako politikak eta zerbitzuak aukera berdintasunaren printzipiora egokitztea.

1.2.1 ekintza. Enplegu planak eta politikak diseinatu, bete eta ebaluatzeko lanei generoko ikuspegia eranstea.

1.2.2. ekintza. Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatzea programen jarraipen batzordeetan eta bestelako zuzendaritza eta kudeaketa organoetan, eta berdintasunaren alorrean aholkularitza eta etengabeko prestakuntza ematea.

1.2.3 ekintza. Informazio eta koordinazio bide egonkorak ezartzea Nafarroako Gobernutik enpresekin, enpresa erakundeekin eta sindikatuekin, abian diren programen inguruan eta berdintasun arloan dituzten arduen inguruan ere.

1.2.4. ekintza. Autoenplegurako eta enpresak sortzeko aholkularitzako programetan eta zerbitzuetan aritzen diren arduradunak aukera berdintasunaren arloan trebatzea.

1.2.5. ekintza. Ikastetxeetako prestakuntzaren eskaintza lan merkatuko beharretara eta bertan sartu nahi duten emakumeen premietara egokitztea.

1.2.6. ekintza. Pertsonen zainketa eta laguntza ematearekin lotutako lanaren profesionalizazioa eta errealizazioa sustatzea.

1.2.7. ekintza. Estatuko gobernuarekin lankidetzan aritzea etxeko langileak arautzen dituen esparrua berrikusi eta gainditzeko, langileen estatutuak jasotzen duen arauetara lot dakion.

1.2.8. ekintza. Gizonezkoenak izan ohi diren jarduera sektoreetan, inbertsiorako laguntzak lortzeko baremoetan balorazio positiboa ematea emakumeak egoteari, lanpostuen egonkortasunari eta, oro har, kontratazio baldintzak hobetzeari.

1.3. helburua. Nafarroako emakumeek lanpostu egonkorak berdintasunez eskura ditzaten sustatzea.

1.31 ekintza. Prestakuntza eta orientazio pertsonalatuaren bitartez, emakumeek lan merkatuan sartzeko dituzten aukerak gehitzea, kontuan harturik talde bakoitzaren egoera, premia berariazkoak eta zer eskualdetan bizi diren.

1.3.2. ekintza. Enplegu tailerrak, tailer eskolak etab. egitea, emakumei gaitasuna eta praktika bereganatzeko bide ematearren ordezkartza txiki-egia duten sektoreetan eta indarra hartzen ari diren enplegu sektoreetan.

1.3.3. ekintza. Enpresaburuak eta langileen hautaketaz arduratzen diren langileak sentsibilizatzea emakumeek lan munduan sartztea eta aurrera egitea oztopatzen duten estereotipoak deuseztatzeke.

1.3.4. ekintza. Enpresaburuei informazioa ematea emakumeak kontratatzen edo haien lan baldintzak hobetzen laguntzeko neurriak buruz.

1.3.5. ekintza. Enpresaburuak sentsibilizatzea enpresek hainbat arlotan duten erantzukizun sozialaz, hala nola lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzekoan eta emakumeen enplegu baldintzen eta hobekuntzaren inguruko gai garrantzitsuetan.

1.3.6. ekintza. Enpresetan, gizonezkoek bete ohi dituzten lanpostuetan edo lanetan hasten diren emakumeentzat, kanpoan nahiz barnean, tutoretza eta segimendu eginkizunak beteko dituzten figurak sor daitezen sustatzea.

1.3.7. ekintza. Lanpostuak baloratzeko sistema objektiboak diseinatzea, lansarietako bereizkeriei aurrea hartzeko eta diskriminazioak detektatzeko tresna gisa.

1.3.8. ekintza. Emakumeek sustaturiko enpresa ekimenak bultzatu, indartu eta iraun dezaten laguntzea, horretarako laguntzak, aholkularitza, prestakuntza eta kideztza eskainiz enpresa egitasmoa zehaztu eta sendotzeko prozesuan.

1.4. helburua. Emakumeek lan merkatuan berdintasunez iraun eta aurrera egin dezaten sustatzea

1.4.1. ekintza. Nafarroako enpresen konpromisoari bultzada eta sostengua ematea ekintza positiboko planak egin ditzaten, eta haien parte-hartzea ikusgai jartzea, "Aukera berdintasunaren entitate laguntzailea" izaera aitortuz.

1.4.2. ekintza. Koordinazio tresnak ezartzea kalitatea ziurtatzeko sistemak eta beste kudeaketa eredu batzuek (EFQM, Ingurumena, erantzukizun sozial korporatiboa etab.) arduratzen diren eta haiek arautzen dituzten erakundeekin, generoko ikuspegia auditoria eta ziurtatze arau eta irizpideetan nola sartu sistematizatzen.

1.4.3. ekintza. Herrietako eta lan merkatutik kanpo gelditzeko arriskua duten sektoreetako emakumeek edo arrisku hori ekar dezaketen ezaugarriak dituztenek enpleguan iraun eta aurrera egin dezatela bultzatzea.

1.4.4. ekintza. Karrerako planak generoko ikuspegiarekin gauzatu daitezela bultzatzea, enpresetan erantzukizun maila desberdinak dituzten emakumei zuzenduak.

1.5. helburua. Negoziazio kolektiboari generoko ikuspuntua eranstea.

1.5.1. ekintza. Lan hitzarmen kolektiboak generoko ikuspuntutik azter daitezela bultzatzea.

1.5.2. ekintza. Sindikatuei bultzada eta sostengua ematea ekintza positiboko planak egiteko, eta haien parte-hartzea ikusgai jartzea, "Aukera berdintasunaren entitate laguntzailea" izaera aitortuz.

1.5.3. ekintza. Gizonen eta emakumeen lansariak, kaleratzeak, lan baldintzak eta barne igoerak aztertu eta negoziazio kolektiboaren alderdi garrantzitsutzat hartzea.

1.5.4. ekintza. Laneko sexu jazarpena ezabatzea bermatzen duten bideak erraztea.

1.5.5. ekintza. Sekzio sindikaletan eta enpresa batzordeetan emakumeen presentzia sustatzea.

2. ARLOA

LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA ETXEBIZITZA

SARRERA

Hiriko Emakumeen Europako Gutunean jaso denez, "hiri planifikazioko filosofia berri baterako lan egin behar da, ekarpen konstruktiboak egiteko herritarren nahiak eta asmoak aintzat hartuko dituen egiazko eztabaida demokratiko batean (...) Hirietako erdiguneak eta kohesio sozialeko harremanak berregin behar dira, gizonezkoen eta emakumeen aukera berdintasun eskaintzeko, bai herrietan bai hirietan. Gutun honen aurreneko helburua gizarte emantzipatuagoa garatzea da, emakumeek antolamenduan eta hiri zerbitzuetan, bizi, segurtasun eta mugikortasun ingurunean parte hartzea ekarriko duen bilakaera oztopatzen duten estereotiporik gabeko gizartea. Garrantzitsua da hiri emakumearen ikuspuntutik ebaluatu eta birmoldatzea, oreka berriak eta dimentsio berri bat gehitzeko." Lurraldearen antolamendua eta etxebizitza emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraikitzen funtsezko zutabetzat hartu behar dira.

Azken urteotan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko egin diren urratsen ondorioz, emakumeen parte-hartzea handitu egin da zenbait arlotan, hirigintza planifikazioan edo lurralde antolamenduan kasu, baina parte-hartze hori ez da aski eta es du islarik hirien eta herrien lurralde antolamenduan.

Organismo arduradunak ekintzak garatzen

- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua.
- NASURSA Navarra de Suelo Residencial, SA.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Toki Administrazio Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Emakumearen Institutua
- Iruñerriko Mankomunitatea.

HELBURUA

2.1. helburua. Lurraldearen antolamendu, etxebizitza, garraio eta ingurumen politikek populazio-arengan duten eragin desberdinen berri izatea.

2.2. helburua. Nafarroako herri eta hiri eremuen planifikazioan, diseinuan eta lurralde antolamenduan generoko ikuspegia txertatzea.

2.3. helburua. Garraio publikoaren eskaintza planifikatu eta antolatzeko lanei generoko ikuspegia eranstea.

2.4. helburua. Emakumeen eta gizonen egoera eta premietarako eta bizitzaren garai desberdinetara egokitutako etxebizitza politika sustatzea.

2.5 helburua. Ingurumen arloko politikak diseinatu eta garatzean generoko ikuspegia aintzat hartzea.

2.6. helburua. Nafarroako herri eta hiri eremuetako hirigintzari, garraioari, etxebizitzari, lurralde antolamenduari eta ingurumenari dagozkien gai guztietan emakumeek eta gizonak, teknikarien aldetik nola herritarren aldetik, modu orekatuan parte hartzen dutela bermatzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

2.1. helburua. Lurraldearen antolamendu, etxebizitza, garraio eta ingurumen politikek populazio-arengan duten eragin desberdinen berri izatea.

2.1.1 ekintza. Herrien eta hirien diseinuak eta antolaketak, zerbitzu publikoen, garraioen, ekipamendu hurbilen, segurtasunaren eta abarren funtzionamenduari dagokionez, emakumeengan eta gizonengan duten eragin desberdina aztertzea.

2.1.2. ekintza. Nafarroako emakumeek eta gizonak denboraren eta espazioen erabilerari dagokionez dituzten premia aztertzea, bai herrietan bai hirietan.

2.1.3. ekintza. Bizikidetzaren unitateko kide diren pertsonak, gizonak eta emakumeak, etxebizitzaren erabilerari dagokionez dituzten behar desberdinak aztertzea.

2.1.4. ekintza. Ingurumenaren eta natur baliabideen degradazioak emakumeen eta gizonen bizi kalitatean duen eragin desberdina aztertzea, bai herrien ingurunean bai hirienean.

2.2. helburua. Nafarroako herri eta hiri eremuen planifikazioan, diseinuan eta lurralde antolamenduan generoko ikuspegia txertatzea.

2.2.1. ekintza. Gizonen eta emakumeen bizi kalitatearen alde egiten duen hirigintza planifikazioa sustatzea, oinezkoei, bizikletaren erabilerari,

ekipamendu kolektibo eskuragarri, hurbil eta ez-sakabanatuei, berdegune babestuei eta abarri emanez lehentasuna.

2.2.2. ekintza. Espazio publikoak egokitzea mugitzeko ahalmena urritua duten pertsonentzat edo umeentzako aulkiak, erosketa gurditxoak, aulki gurpildunak erabiltzen dituztenentzat.

2.2.3. ekintza. Bizitoki eremuak eguneroko beharrek eskatzen dituzten zereginak betetzeko behar diren zerbitzuez eta ekipamenduez hornitzea.

2.2.4. ekintza. Segurtasun elementuak ezartzea hiri azpiegituretan: ikusgarritasuna eta ikusmenerako ikuspegia handitzea, argiteria hobetzea, lurrazpiko pasabideak kentzea, zoladura hobetzea etab.

2.2.5. ekintza. Emakumeek herrien eta hirien bizitzan eta historian izandako presentzia eta ekarpena aitortzea eta ikusgai jartzea, gune bereziei, kaleei, eraikinei eta kultur etxeei haien izenak emanez, estatuak eta ibilbide turistikoak ezarritab.

2.3. helburua. Garraio publikoaren eskaintza planifikatu eta antolatzeko lanei generoko ikuspegia eranstea.

2.3.1. ekintza, Garraio publikoa erabiltzeko erregelamenduak aztertu eta emakumeen eta gizonen beharretara egokitzea.

2.3.2. ekintza. Erabiltzaileen, emakume zein gizonen garraio behar ohikoenak aztertzea, destinoak, maiztasuna, ordutegiak, ibilbideak eta geltokiak egokitzeko.

2.3.3. ekintza. Ordutegiak, maiztasuna, ibilbideak eta geltokiak ordutegi arautuetatik kanpo eta gehienbat emakumeek betetzen duten ekoizpen lanaren premietara egokitzea.

2.3.4. ekintza. Ibilgailu publikoak egokitzea mugitzeko ahalmena urritua duten pertsonen beharretara eta etxeko lanak egiteak edo mende-kotasuna duten pertsonak zaintzeak dakartzan (erosketa gurditxoak, haurrentzako aulkiak, aulki gurpildunak etab.) beharretara.

2.3.5. ekintza. Segurtasuna areagotzeko neurriak ezartzea, bereziki gauaz, adibidez autobusa eskatutako tokietan gelditzea, argiteria etab.

2.3.6. ekintza. Garraio publikoaren eskaintza herrietan eta hirietako aldirietan bizi diren emakumeen beharretara egokitzea, zerbitzuetan eta jardueretan parte har dezaten eta eskura izan ditzaitezten laguntzeko xedez.

2.3.7. ekintza. Herrietan modu sakabanatuan eta batzuetan arautu gabe eskaintzen diren garraio publikoko zerbitzuak koordinatu eta arautzea, eta garraio publikoaren intermodalitatea sustatzea.

2.4. helburua. Emakumeen eta gizonen egoera eta premietarako eta bizitzaren garai desberdinetara egokitutako etxebizitza politika sustatzea.

2.4.1. ekintza. Etxebizitzaren diseinuari eta eraikuntzari buruzko Nafarroako araudia aztertu eta hartan aldaketak egitea, etxebizitza horiek bizikidetzaren eredu berrietara egokitzeko, generoko ikuspegia txertatzeko eta garapen iraunkorrari begira.

2.4.2. ekintza. Etxebizitzaren eraikinak diseinatu eta egitean barnealdean bizi kalitate eta segurtasun hobea bermatzeko duten elementuak gehitzea: zokoak saihesten dituzten espazio komunitario argiak, ikusmenaren ikuspegia areagotzea eskailetan, garajeetan, igogailuetarako sarbideetan eta abarretan.

2.4.3. ekintza. Auzoen komunitateetan, etxebizitzaren barruan eta kanpoan espazio eta zerbitzu komunak sor daitezela bultzatzea.

2.4.4. ekintza. Etxebizitza eskaintza publiko anitzagoa egitea, emakumeei eta gizonei adinaren, lanbidearen edo familia edo bizikidetzaren eredu araberako egokitzeko.

2.4.5. ekintza. Emakumeei etxebizitza publikoa eskuratzen laguntzea, batez ere beren ardurapean menpekotasuna duten pertsonak dituztenei, gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan daudenei eta indarkeriaren biktimak direnei.

2.5 helburua. Ingurumen arloko politikak diseinatu eta garatzean generoko ikuspegia aintzat hartzea.

2.5.1. ekintza. Osasunerako eta ingurumeneko kaltegarriak diren zenbait teknologia eta produktu etxean erabiltzeak dakartzan arriskuez sensibilizatzea.

2.5.2. ekintza. Emakumeak eta gizonak ingurumenari dagokionez sensibilizatzea eta hezteko, dituzten beharrak, adinak, lanbideak edo prebenituen beharrek arriskuak kontuan hartzea.

2.5.3. ekintza. Generoari eta ingurumenari buruzko prestakuntza jarduerak egitea ikastetxeetako eta Ingurumen Baliabideen Zentroko profesionalei eta esparru horretan aritzen diren beste profesional edo talde batzuei zuzendua.

2.6. helburua. Nafarroako herri eta hiri eremu-erako hirigintza, garraio, etxebizitza, lurralde antolamendu eta ingurumenari dagozkien gai guztietan

emakumeek eta gizonek, teknikarien aldetik nola herritarren aldetik, modu orekatuan parte hartzen dutela bermatzea.

2.6.1. ekintza. Herritarrei oro har eta emakumei bereziki laguntzea hirigintza politikei eta proiektuei buruzko informazioa eskura dezaten, lurralde diseinuan eta antolaketan parte hartzeko bideak emateko.

2.6.2. ekintza. Emakume taldeek eta generoko adituek hiri planifikazioan, lurralde antolamenduan, garraioan, ingurumenean eta etxebizitzan parte har dezaten bultzatzea espresuki, dagoeneko ezarriko dauden koordinaziorako mahai eta organoen bitartez edo parte hartzeko bide berriak sortuz, emakumeen iritzia eta behar berriak aintzat har daitezela.

3. ARLOA

HEZKUNTZA ETA SUSTAPENA

SARRERA

Gaur egun, emakumeok presentzia handiagoa lortu duten esparruetako bat hezkuntzarena da, halako moduan non ez baita alderik sumatzen emakumeek eta gizonek berengana dezaketen prestakuntza mailan. Batzuek zein besteek ikasketak egiteko edo hezkuntza jasotzeko eskubidea dute.

Sexu bereizketa, batez ere, batzuen eta bestearen prestakuntza-hautuetan datza, eta horrek gero batean enplegua lortzea eta lan merkatuan hartuko duten tokia baldintzatuko du hein handi batean. Prestakuntza eta lan aukeraketa horietan zenbait faktore erabakigarriak dira: pertsonen sexuari datzekion rol eta estereotipoak, hezkuntzan zehar barneratutako ereduak eta emakumeek eta gizonek beren burua mugatzen ikasi izana.

Aipatutako berdintasun ezak hezkuntza egituretan du isla, arlo horretan emakumeak gehiengo badira ere ardura postu gehienak gizonek betetzen baitituzte.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean.

- Hezkuntza Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua.
- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua
- Toki Administrazioako Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

3.1. helburua. Hezkuntza sistema emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipiora egokitzea.

3.2. helburua. Eskola komunitatea sentsibilizaztea emakumeek eta gizonak bizitzaren une guztietan aukera berdintasuna izan dezaten lan egin beharraz.

3.3. helburua. Hezkuntza materialak hezkidetzan oinarritutako ikuspuntura egokitzea.

3.4. helburua. Generoko ikuspegia eta hezkidetzaren ikuspuntua sartzeara hezkuntza eta/edo lanbide orientazioko prozesuetan.

3.5. helburua. Pertsona helduen hezkuntza emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren arabera izan dadin sustatzea.

3.6. helburua. Berdintasunaren printzipioa txertatzea unibertsitatearen esparruan.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

3.1. helburua. Hezkuntza sistema emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipiora egokitzea.

3.1.1. ekintza. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko teknikariak eta kargu politikoak aukera berdintasunaren eta hezkidetzaren arloan trebatzea.

3.1.2. ekintza. Prozedurak ezartzea zuzendaritza taldeek, ikuskaritza zerbitzuak eta eskolako laguntza zerbitzuak hezkidetzan oinarrituriko ikasketen proiektuak prestatzen parte har dezaten.

3.1.3. ekintza. Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuan hezkidetzazalearen figura sortzea.

3.1.4. ekintza. Hezkuntzaren etapa guztietako lanbide prestakuntza eta birziklapen planei hezkidetzaren ikuspuntua eta generoko ikuspegia erantsia.

3.1.5. ekintza. Ikastetxeetan funtsak sortzea hezkidetzako materialak eta irakasgai desberdinetan hezkidetzaren ikuspegia txertatzen laguntzeko materialak biltzeko.

3.1.6. ekintza. Ikastetxeetan hizkeraren eta irudien erabilera ez-sexista bultzatzea.

3.1.7. ekintza. Lan talde bat sortzea prestakuntza zikloetako ordezkariarekin, enpresaburuekin eta hezkuntza orientazioko langileekin, esparru sozio-laboral behar dituen lanbide ezaugarriak eta gaitasunak aztertzea eta identifikatzeko, hori izan dadin oinarria lanbide ezaugarriak diseinatu eta

curriculumen edukiak erakitzeke, neska-mutikoei horiek eskuratzeko dituzten oztopoei antzeman eta haiek desagerrarazteko.

3.2. helburua. Eskola komunitatea sentsibilizaztea emakumeek eta gizonak aukera berdintasuna izan dezaten lan egin beharraz.

3.2.1. ekintza. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren inguruko sentsibilizazio ekintzak egitea irakasleentzat, irakaskuntzakoak ez diren langileentzat, ikasleentzat eta familientzat.

3.2.2. ekintza. Orientazio kanpainak egitea neska gehiagok ekin diezaieten ikasketa tekniko eta zientifikoei.

3.3. helburua. Hezkuntza materialak hezkidetzan oinarritutako ikuspuntura egokitzea.

3.3.1. ekintza. Hezkuntza maila guztietan erabiltzen diren eskola materialen berrikuspina eta azterketa sustatzea hezkidetzaren ikuspuntutik.

3.3.2. ekintza. Curriculum diseinuak prestatzean generoko ikuspuntua erantsi dadin sustatzea.

3.3.3. ekintza. Hezkuntza materialetan hezkidetzaren ikuspegia txertatzeko irizpideak sortu eta zabaltzea, irakasleentzat, argitaletxeentzat, gurasoentzat, egileentzat.

3.4. helburua. Generoko ikuspegia eta hezkidetzaren ikuspuntua sartzeara hezkuntza edo/eta lanbide orientazioko prozesuetan.

3.4.1. ekintza. Hezkidetzan eta aukera berdintasunean trebatzea orientazioarekin zerikusia duten pertsona guztiak, ikasleen artean ikasketa eta lanbide aukerak anitzagoak izan daitezela sustatzeko, ikasleen gaitasunen, interesen, motibazioen eta asmoen arabera, hezkidetzan oinarritutako ikuspegiak betiere.

3.4.2. ekintza. Ikastetxeetan jokabide eta orientazio egokiak zabaltzea orientazio proiektuak diseinatu eta garatzearren, hezkidetzan oinarrituriko ikuspegiak.

3.4.3. ekintza. Orientazio programen emaitzak generoko ikuspuntutik ebaluatzeko aukera ematen duten tresnak diseinatu eta erraztea.

3.4.4. ekintza. Neska-mutikoen ikasketa eta lanbide aukerarako erabakigarriak diren faktoreak aztertzea.

3.5. helburua. Pertsona helduen hezkuntza emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioaren arabera izan dadin sustatzea.

3.5.1. ekintza. Pertsona helduen prestakuntzarako ikastaroak eta ekimenak diseinatzean eta

horien ebaluazioan hezkidetzatik abiatu beharra dagoela kontuan hartzea.

3.5.2. ekintza. Gizarte bazterkeria jasateko arrisku handiagoa duten taldeetako emakumeei (gutxiengo etnikoak, etorkinak, emakume ezgaituak...) zuzendutako prestakuntza programak diseinatu eta betetzea.

3.5.3. ekintza. Pertsona helduen prestakuntza planifikatzea, irispidea eta ordutegiak familiako arduetara egokitu behar direla kontuan hartuta.

3.5.4. ekintza. Bideak ezartzea gaur egun hezkuntza sistemak eskaintzen duen prestakuntza egiteko aukera errazteko emakumeei, eta teknologia berrien bitartez sustatzea.

3.5.5. ekintza. Pertsona helduen hezkuntzan etxeko lanetan gizonen ardurakidetasuna indartzeke jarduerak sartzea.

3.6. helburua. Berdintasunaren printzipioa txertatzea unibertsitatearen esparruan.

3.6.1. ekintza. Ikasketa planak berrikustea, generoko azterketa erantsiz ikasketa gai guztiei, eta ahalegin berezia eginez irakasleen prestakuntzarekin zerikusia dutenetan eta gradu ondoko ikastaroetan.

3.6.2. ekintza. Zientzien eta diziplina zientifikoaren eraikuntzan ikuspegi berri bat gehituko duen tresna gisa, generoko azterketa barne hartuko duten azterlan eta ikerketak sustatzea.

3.6.3 ekintza. Emakumeen azterlanen datu base bat garatzea, kontsulta eta ezagutza errazteko.

3.6.4. ekintza. Jakintzaren arloetan emakumeek egindako ekarpenak jasoko dituzten ikerlanak sustatzea.

4. ARLOA

OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundeak honelaxe definitzen du osasunaren kontzeptua: "ongizate fisiko, adimenekoa eta soziala, bizitzaren esparru guztiak hartzen dituena eta bizi eta lan egiten den gizarte motarekin lotura duena (...)"¹. Haien egoera sozial, ezaugarri eta berariazko izaera desberdinak direla-eta, emakumeen osasuna eta gizonena bereizirik tratatzea emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraikitzeke zutabe oinarritzkoa da.

Azken urteotan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko egin diren urratsek emakumeen egoera hobetzea ekarri dute esparru guztietan, eta

horrekin batera haien osasunak eta ongizateak ere hobera egin dute; oraindik ere beharrezkoa da, halere, aurrera egiten segitzea emakumeen bizi kalitate hobea lortzeko.

Emakumeen osasunaren tratamenduak gizonena ez bestelakoa izan behar du, haien baldintzak, eritasunak, azturak, ezaugarriak etab. desberdinak direlako.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Osasun Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua.
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua.
- Toki Administrazioiko Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUA

4.1. helburua. Nafarroako emakumeen osasun eta ongizate maila aztertu eta ikusgai jartzea, haien oinarrian dauden faktore guztiak kontuan harturik: sozialak, ekonomikoak, lan arlokoak, politikoak eta kulturalak.

4.2. helburua. Gizarte eta osasun zerbitzuak eta programak emakumeen eskakizun eta behar berariazkoetara moldatzea.

4.3. helburua. Emakumeen osasun integrala eta ongizatea sustatzea bizi ziklo osoan zehar.

4.4. helburua. Emakumeen lan osasunari helitzeko modua hobetzea, bai lan merkatuan sartuta daudenena bai etxean lan egiten dutenena.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

4.1. helburua. Nafarroako emakumeen osasun eta ongizate maila aztertu eta ikusgai jartzea, haien oinarrian dauden faktore guztiak kontuan harturik: sozialak, ekonomikoak, lan arlokoak, politikoak eta kulturalak.

4.1.1. ekintza. Nafarroako populazioa osasunaren eta ongizatearen esparruarekin zerikusia duten estatistika, datu base, informazio bilketa guztietan eta abarretan sexuaren aldagaia modu sistematikoa txertatzea.

4.1.2. ekintza. Nafarroako administrazio publikoek osasunarekin eta gizarte ongizatearekin lotuta finantzatu edo/eta bultzatzen dituzten azterlan,

azterketa eta ikerketa guztietan generoko ikuspegia txertatzea, datu bereziak lortzeaz haratago.

4.1.3. ekintza. Emakumeen eta gizonen bizimoduak buruzko ikerketa garatzea, bizimodua osasunerako eta patologia fisiko eta psikikoetarako erabakigarria den aldetik, bai eta bizi etapa desberdinei buruzkoa ere, sexu bakoitzari tratamendu mediko desberdina emateko arrazoia izan daitezkeelako.

4.1.4. ekintza. Pobrezia egoeretan eta gizarte bazterkeriako prozesuetan eta egoeretan sexuarekin lotuta eragina duten alderdi desberdinak identifikatu eta aztertzea.

4.1.5. ekintza. Nerabeen haurdunaldi kopuruak aztertu, haien osasunean horrek dituen ondorioak eta eragina kontuan harturik.

4.1.6. ekintza. Nafarroako Foru Komunitatean prostituzioan aritzen diren emakumeen gizarte eta lan baldintzak eta haienzako laguntza programak aztertzea.

4.2. helburua. Gizarte eta osasun zerbitzuak eta programak emakumeen eskakizun eta behar berariazkoetara moldatzea.

4.2.1. ekintza. Osasunaren eta gizarte ongizatearen prebentzio eta sustapen programak diseinatu, bete eta ebaluatzean, bai eta praktika profesionala gauzatzean ere, generoko ikuspegia txertatzea.

4.2.2. ekintza. Osasunaren esparruko eta esparru sozialeko profesionalen lan talde bat sor dadin bultzatzea, osasunaren eta gizarte ongizatearen esparruan generoko ikuspegia txertatzearen, jokabide onak eta esperientziak identifikatzen eta eredu gisa balio duten metodologiak bilatzen lan egin dezan.

4.2.3. ekintza. Banakako osasunari eta taldekoari begira, aholku hezitzailea eta heziketa sustatzea, bizitzaren etapa desberdinekin eta generoko ikuspegiarekin lotuta.

4.2.4. ekintza. Emakume guztiek, bereziki herrietakoek, gizarte eta osasun zerbitzuak, laguntza baliabideak, kultur bitartekaritzako zerbitzuak etab. hurbilagoak eta hobeak izan ditzatela bultzatzea.

4.2.5. ekintza. Informazio, heziketa eta laguntza afektibo-sexualeko programak prestatzea, generoko ikuspegi batetik eta populazioaren adin eta talde desberdinei zuzenduak.

4.2.6. ekintza. Generoko ikuspegia eranstea tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari aurrea hartzeko eta gutxitzeko programei.

4.2.7. ekintza. Ekintza positiboak ezartzea, generoko indarkeria jasaten duten eta gizarte bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden guraso bakarreko familiek babes soziala emateko sistematik eskuratzeko.

4.3 helburua. Emakumeen osasun integrala eta ongizatea sustatzea bizi ziklo osoan zehar.

4.3.1. ekintza. Sentsibilizazio kanpainak egitea emakumeen artean, norbere buruaren zainketak, prebentzioak eta eritasunen antzemate goiztiarrak duten garrantziaz.

4.3.2. ekintza. Lan sareak eta lankidetzak ezartzea gizarte eta osasun administrazioen artean, emakumeen osasuna sustatzeko eta zainzaileei zerbitzuen erabileran eta tramite administratiboan kudeaketan laguntzeko xedez.

4.3.3. ekintza. Eskolako osasunerako heziketa, osasuna sustatzeko eskolak eta unibertsitate osasuntsuen proiektuak bultzatu eta haien laguntza ematea, betiere generoko ikuspegiarekin lan egiten badute.

4.3.4. ekintza. Nerabeen artean nahi gabeko haurdunaldien prebentzio kanpainak gauzatzea.

4.3.5. ekintza. Aiten presentzia eta parte-hartze aktiboa sustatzea erditzea prestatzeko ikastaro eta programetan, bai eta umeei ondoren eman beharreko zainketei buruzkoetan ere, aitatasun aktiboan eta ardurakidetasunean inplikatzeko.

4.3.6. ekintza. Gazte, familia eta irakasleentzako ikastaro eta mintegiak egin daitezela bultzatzea, elikaduraren arazoak garai atzemateko jarraibideei eta arazo horien arriskuei eta ondorioei buruzko informazioa emateko.

4.3.7. ekintza. Menopausiari fisikoki eta emozionalki hobeki aurre egiteko eta menopausia osasun ikuspegi integral batetik tratatzen dela bermatzeko kanpainak eta programak sustatzea.

4.3.8. ekintza. Lan ildo bereziak zehaztea, arrazoi sozial edo kulturalak direla-eta osasun eta gizarte zerbitzuez baliatzeko arazo gehiago izan ditzaketan emakume taldeekin (presoak, ijitoak, etorkinak, prostitutak...).

4.3.9. ekintza. Familian zainzaile diren pertsonen beharrak identifikatzea, eta horietatik abiatu honakoetara bideraturiko zerbitzuak diseinatzea: aholkularitza, errehabilitazioa eta fisioterapia, zaintzarako laguntza, atsedena asteburuetan eta oporretan etab.

4.3.10. ekintza. Antzeko arazoak dituzten emakumeak elkartu eta elkarri laguntzea sustatu eta indartzeko ekintzak zehaztea.

4.4. helburua. Emakumeen lan osasunari helzteko modua hobetzea, bai lan merkatuan sartuta daudenena bai etxean lan egiten dutenena.

4.4.1. ekintza. Produktu kimikoen bidezko intoxikazioak, estresak, jazarpen sexual eta psikologikoak, maiz egindako esfortzuak eta antzeko faktorek emakumeen ongizatean eta osasunean izan dezaketen eraginaren azterketa sustatzea.

4.4.2. ekintza. Haurdun dauden emakumeen lanpostuko osasun egoerari buruz legeria indarduan aurreikusirik dauden neurrien jarraipena egitea ikuskaritzaren bitartez.

4.4.3. ekintza. Lan arriskuen prebentzioko zerbitzuetan aritzen direnei eskatzea, bete beharrekoen artean, lanpostu bakoitzak emakumeentzat eta gizonentzat izan ditzakeen gorabehera desberdinak kontuan hartzeko prestakuntza eskain dezate-la.

4.4.4. ekintza. Etxeko lanak egiteak eta zahar-
rrak, gaixoak eta ezgaituak zaintzeak dakarten
nekeak eragin ditzakeen arriskuak aztertzea, eta
horien inguruko zabalkunde eta sentsibilizazio
kanpainak egitea.

5. ARLOA

KULTURA, JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA, AISIA ETA DENBORA LIBREA

SARRERA

Emakumeek eta gizonen denboraren erabilera modu desberdinean banatzea rolen arabera ezarritako desberdintasunen ondorio esanguratsua da.

Rolak sexuaren arabera bereiztearen ondorioz, halaber, desberdinak dira gizonen eta emakumeen denbora librean egiten dituzten jarduerak.

Nafarroako emakumeak kulturaren, kirolean, aisian eta denbora librean ez dira gizonen modu berean aritzen, eta horrek esan nahi du oraindik erabat lortu gabe dagoela emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna, bide luzea egina badugu ere.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Kultura eta Turismo Departamentua.
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Toki Administrazio Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua

- Hezkuntza Departamentua.

- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

5.1. helburua. Administrazio publikoa egokitzea, esparru hauetan generoko ikuspegia txertatzeko: kultura, arteak, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea.

5.2. helburua. Kulturaren, jarduera fisikoaren eta kirolaren, aisiaren eta denbora librearen esparruarekin lotura duten gizarte eta erakunde eragileek eta entitateek gauzatutako programetan eta proiektuetan generoko ikuspegia sartuta dagoela bermatzea.

5.3. helburua. Emakumeak protagonista dituzten kultur, arte eta kirol ekimenen ekoizpena eta antolaketa bultzatu eta zabaltzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

5.1. helburua. Administrazio publikoa egokitzea, esparru hauetan generoko ikuspegia txertatzeko: kultura, arteak, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora librea.

5.1.1. ekintza. Modu sistematikoan txertatzea sexuaren aldagaia Kultura eta Turismo Departamentuak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eta kultura, jarduera fisiko, kirol, aisia eta denbora libreko jarduerak antolatu eta sustatzeaz arduratzen diren beste organismo eta erakundeek egin eta sustatutako aisia eta denbora libreko programen estatistiketan, horien segimendurako datu baseetan, azterlanetan eta txostenetan, datu horiek aukera eman dezaten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak diagnostikatu eta nabarmentzeko.

5.1.2. ekintza. Azterlanak egitea, Nafarroako administrazio publikoak kulturaren, jarduera fisikoaren, kirolaren, aisiaren eta denbora librearen esparruan sustatu, kudeatu edo diuz laguntzen dituen programa eta jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartzea desberdina den jakiteko.

5.1.3. ekintza. Udal eta eskualdeetako kultur eta/edo kirol zerbitzuen programazioan emakumeentzako jarduerak sartzea, haien beharrak eta interesak kontuan harturik. Programaziorako irizpideetan bereziki mendekotasuna duten pertsonen zainketaekin, ordutegiarekin eta irisgarritasunarekin zerkusia duten alderdiei eginen zaie kasu.

5.2. helburua. Kulturaren, jarduera fisikoaren eta kirolaren, aisiaren eta denbora librearen esparruarekin lotura duten gizarte eta erakunde eragileek eta entitateek gauzatutako programetan eta

proiektuetan generoko ikuspegia sartuta dagoela bermatzea.

5.2.1. ekintza. Kultur jarduera eta programak, jarduera fisikoa eta kirola, aisia eta denbora libre diseinatu, planifikatu, programatu, abiarazi eta ebaluatzeko ardura duten zuzendaritzako langile eta teknikari eskudunak generoko ikuspegiaren trebatzea.

5.2.2. ekintza. Generoko ikuspegia balorazio irizpide gisa erabiltzea kontratazio eta dirulaguntza publikoetarako esparru hauetan: kultura, artea, kirol jarduera, kirola, aisia eta denbora libre.

5.2.3. ekintza. Administrazio publikoak kultur, arte eta kirol jardueren zabalkunderako erabiltzen dituen bitartekoei eta bideei emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eta generoko ikuspegia eranstea.

5.2.4. ekintza. Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzea zuzendaritza eta kudeaketa organo guztietan eta Nafarroako administrazio publikoek sustatu edo diruz lagundutako kultur, kirol eta arte ekintzetan eratzten diren epaimahaietan.

5.2.5. ekintza. Kanpalekuetan, hiriko udalekuetan, tailerretan eta mota orotako aisia jardueretan parte hartzeko onartu eta dirulaguntza emateko prozeduretan ekintza positiboak betetzea baliabide urriak dituzten guraso bakarreko familiei parte hartzen laguntzeko.

5.3. helburua. Emakumeak protagonista dituzten kultur, arte eta kirol ekimenen ekoizpena eta antolaketa bultzatu eta zabaltzea.

5.3.1. ekintza. Nafarroako emakumeek kultura, arte eta kirolaren esparruari egindako ekarpen historikoa berreskuratu eta transmititzea.

5.3.2. ekintza. Emakumeek kultura, arte eta kirol arloetan bultzatu edo gauzatzen dituzten lan eta ekimenei laguntza ematea.

5.3.3. ekintza. Nafarroako emakumeek kulturean, artean eta kirolean izaten dituzten lorpenak aintzat hartzea.

5.3.4. ekintza. Kultur eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateei eskatzea jardueren oroit-idazkietan datuak sexuaren arabera bereizirik jaso ditzatela, jarduera horietan emakumeen partaidetza eta ekarpena zein diren jakin ahal izateko.

6. ARLOA

HERRIETAKO EMAKUMEAK

SARRERA

Herrietako emakumeen egoera emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko funtsezko faktoreetako bat dela jabetu behar dugu. Arlo honetan azken urte hauetan izandako bilakaera dela eta, emakume horien egoerak nabarmen egin du hobera, baina gaur egun ere, herrietako emakume talde zehatz batean batik bat (45 urtez goitikoak, ezkonduak, seme-alabak dituztenak eta ikasketa oso oinarrizkoak, etxeko lanetan aritzen direnak eta, nekazaritza eremuetan, horretan ere lan egiten dutenak senarrari laguntzeko, ez direlako lurren jabe ez soldatapeko), berdintasuna eta eskubideen ezagutza lortzeko aurrerapauso horiek ez dira gertatu edo oso mantso gertatzen ari dira.

Nafarroan, herrietako emakumeek desabantailak dituzte hirietan bizi diren emakumeen aldean, batez ere hezkuntza jasotzeko, gazteek mugitzera behartuta daudelakoz ikasi nahi badute, osasun zerbitzuen arloan, kulturean, soldatapeko lana lortzeko, eta okerrago daude gizonen aldean ere, emakume horien lana ez delako ezagutzen, eta eguneroko bizitzaren hainbat esparrutan eta erabakiak hartzeko prozesuetan duten partaidetzari dagokionez.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.
- Kultura eta Turismo Departamentua.
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua
- Osasun Departamentua.
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua
- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Toki Administrazioiko Departamentua.

- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

6.1. helburua. Nafarroako herrietako emakumeen egoerari buruzko informazioa zabaldu eta Nafarroako gizartea egoera horretaz sentsibilizatzea.

6.2. helburua. Emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko herrietako erakunde politiko, sindikal, profesional eta sozialetan.

6.3. helburua. Emakumeen laneratzea bultzatzea eta herrietako garapen ekonomikoari egiten dizkioten ekarpenak aitortzea.

6.4 helburua. Herrietako zerbitzuak hobetzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

6.1. helburua. Nafarroako herrietako emakumeen egoerari buruzko informazioa zabaldu eta Nafarroako gizartea egoera horretaz sentsibilizatzea.

6.1.1. ekintza. Herrietako emakumeen eta gizonen egoera desberdinak kontuan hartzen dituen diagnosia egitea, Europar Batasunaren laguntzarekin edo Nafarroako Gobernuak berak bakarrik finantzaturiko landa garapeneko programak planifikatu aurretik ebaluazio gisa erabiltzearen.

6.1.2. ekintza. Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeetan eginiko ikerlan eta diagnosien emaitza nagusien berri eman eta zabalkundea egitea.

6.2. helburua. Emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko herrietako erakunde politiko, sindikal, profesional eta sozialetan.

6.2.1. ekintza. Emakumeek herrietako erakunde politikoetan, sindikaletan, profesionaletan eta sozialetan parte har dezatela bultzatzeko ekintza positiboko neurriak premiazkoak direla zabaltzeko jarduerak egitea.

6.2.2. ekintza. Herrietako erakunde politiko, sindikal, profesional edo sozialetan aukera berdintasunaren alde egiteko jarduerak diseinatu eta abiarazten eta/edo emakumearen arlo berariazkoak sortzen laguntzea eta horiei buruzko aholkuak ematea.

6.2.3. ekintza. Aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea ekintza positiboko planak diseinatu eta abiarazi nahi dituzten herrietako erakunde politiko, sindikal, profesional eta sozialei.

6.2.4. ekintza. Herrietako erakunde politiko, sindikal, profesional eta sozialei dirulaguntzak emate-

ko edo haiekin hitzarmenak ezartzeko balorazio irizpideen artean honakoa sartzea: emakumearen arloa edo ekintza positiboko planak egotea, edo erabaki organoetan emakumeak izatea.

6.3. helburua. Emakumeen laneratzea bultzatzea eta herrietako garapen ekonomikoari egiten dizkioten ekarpenak aitortzea.

6.3.1. ekintza. Balorazio handiagoa ematea emakumeek aurkeztutako proiektuei edo negozio planei edo emakumeentzako lanpostuak sortzea aurreikusten dutenei Landa Garapeneko 2007-1013 planean edo Gobernuaren beste edozein programatan aurreikusitako neurrietan.

6.3.2. ekintza. Landa Garapeneko 2007-1013 planean edo Gobernuaren beste edozein programatan aurreikusitako neurrietan, emakumeentzako lanpostu finkoak sortzen dituen inbertsio plana aurkezten duten lehen sektoreko enpresei balorazio handiagoa ematea.

6.3.3. ekintza. Emakumeak bitartekoez baliatuz daitezten eta Nafarroako Gobernuaren programean ezarritako laguntzak eskuratzen laguntzeko ekintza positiboak sartzea.

6.3.4. ekintza. Herrietako emakumeen egoera profesional desberdinak erregularizatzeko eta ikusgai jartzeko bideak sortzea.

6.3.5 ekintza. Herrietan nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen diren emakumeen erregistroa sortzea.

6.3.6. ekintza. Herrietako emakumeek informazioaren teknologia berrien arloan duten prestakuntza hobetzea.

6.3.7. ekintza. Herrietako kooperatibetako bazkide emakumezkoak trebatzea emakumeek zuzendaritza organoetan parte har dezatela sustatzeko.

6.4. helburua. Herrietako zerbitzuak hobetzea.

6.4.1. ekintza. Herrietako biztanleei laguntza emateko zerbitzuen beharra eta eskaera aztertzea.

6.4.2. ekintza. Herrietan ekipamendu sozialak sustatzea, emakumeek prestakuntza jaso, lana izan, eta aisiaz, kulturaz eta kirolaz gozatzeko aukera hobe izan dezaten eta elkarleen lana errazteko.

6.4.3. ekintza. Informatikaz eta teknologia berrien beste arlo berritzaile batzuek baliatzen lagunduko duten programak egitea, herrietako emakumeek isolamendua gainditzeko lagungarri izan daitezten.

7. ARLOA**FAMILIA, BIZITZA PERTSONALA ETA LANA BATERATZEA****SARRERA**

Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraikitzeko funtsezko ardatza dela jabetu behar dugu. Horri heltzeko, emakumeen eta gizonen beharra dela kontuan hartu behar da eta, gauzatu-kobada, gizarte osoaren konpromisoa eta inplikazioa behar direla.

Emakumeek lan ordaindua izan eta esparru publikoan parte hartzeko prozesuarekin batera ez da gertatu gizonen esparru pribatua parte hartzeko prozesurik. Ez dira sortu, bsteetik, behar diren zainketa zerbitzuak.

Horren ondorioz, emakumeek oraindik etxeko lanen ardura osoa beren gain uzten duen rola betetzen segitzen dute. Emakumeen eta gizonen ohituren eta arduren aldaketek epe ertain eta luzeko prozesuen emaitza izan behar dute. Zainketa-aren etika berria eratu behar da. Etika berri horretan balioztat hartuko da emakumeek eta gizonen batera hartzea beren gain esparru pribatuko ardurak. Horrela loortuko da, gainera, lanak bazterrean utz ditzan emakume eta gizonen familia bizitza eta bizitza pertsonala oztopatzea. Horrez gainera, nahitaezkoa da zainketa zerbitzu hurbilak sortzea, familia, lana eta bizitza pertsonala egiaz bateratzea bermatuko dutenak.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua.
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua.
- Toki Administrazio Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

7.1. helburua. Sentsibilizazio lana egitea Nafarroako populazio osoa jabetu dadin emakumeek eta gizonen ardura bera dutela etxeko lanak betetzen eta pertsona ezgaituen zainketa.

7.2. helburua. Enpleguaren egiturak eta laneko nahiz parte-hartze soziopolitikoko denborak eta antolamenduak pertsonen beharretara egokitzea.

7.3. helburua. Zerbitzu soziokomunitario anitz eta malguez osatutako sarea bermatzea.

7.4. helburua. Bizitza pribatua eta familia eginkizunak zaindu eta kudeatzeko ardurak emakumeen eta gizonen artean modu desorekatuan banatzea dakarren errealitatea, eta osasunean, lana lortzeko edo lanean aurrera egiteko aukeretan dituen ondorio ekonomikoak ikertu eta haien zabalkunde egitea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

7.1. helburua. Sentsibilizazio lana egitea Nafarroako populazio osoa jabetu dadin emakumeek eta gizonen ardura bera dutela etxeko lanak betetzen eta pertsona ezgaituen zainketa.

7.1.1. ekintza. Nafarroako biztanle guztientzako kanpainak eta beste jarduerak batzuk egitea, etxeko lanen ardura eta pertsona ezgaituen zainketa gizonen eta emakumeek beren gain hartu behar-aren zabalkunde egiteko.

7.1.2. ekintza. Familia emakumeen eta gizonen erantzukizun saihestezina dela zabalitzea eta, beraz, laneko zereginak eta denborak antolatzean hori kontuan hartu eta baloratzea.

7.1.3. ekintza. Hezkuntza arautuko heziketa-curriculum guztietan emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari eta sexuen arteko ardurakidetasunari buruzko prestakuntza sar dadin sustatzea.

7.2. helburua. Enpleguaren egiturak eta laneko nahiz parte-hartze soziopolitikoko denborak eta antolamenduak pertsonen beharretara egokitzea.

7.2.1 ekintza. Lanaldia emakumeek eta gizonen familiararen eta bizitza pertsonalaren arloan dituzten behar eta arduetara egokitzeko neurriak zehaztea.

7.2.2. ekintza. Lana eta familia bateratzeko lege xedapenetan aurreikusitako eskubideak eta neurriak eta administrazio publikoek onetsitako beste neurri batzuk erabiltzeko modu desberdinak aztertzea eta baloratzea.

7.2.3. ekintza. Pizgarriak jartzea gizonen mendokotasuna duten pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak erabil ditzaten.

7.2.4. ekintza. Foru Komunitatean eta bereziki enpresaburuaren eta sindikatuen artean lanaren esparruan ardurakidetasunaren eta bateratzearen inguruan gauzatutako esperientzien eta jokabide egokien zabalkunde egitea.

7.2.5. ekintza. Familia zaindu behar-aren ondorioz lan merkatua aldi baterako utzi duten perso-

nentzako prestakuntza, mantentze eta birziklaje programak gauza daitezen bultzatzea.

7.2.6. ekintza. Lan eta eskola denborak moldatu eta bateragarri bilakatzea.

7.3. helburua. Zerbitzu soziokomunitario anitz eta malguez osatutako sarea bermatzea.

7.3.1. ekintza. Malgutasun irizpideak eranstea gai hauetan: eremuen banaketa, ordutegiak, oporrrak, errenta, eta Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntza eskaintzak dagoen eskaerara egokitzen joatea.

7.3.2. ekintza. Etxeko laguntza zerbitzuen eskaintza, zahar-etxe publikoak eta eguneko zentroak eta hurbileko beste zerbitzu batzuk dagoen eskaerara egokitzea, batez ere herrietako premiak kontuan harturik.

7.3.3. ekintza. Mendekotasuna dutenak zaintzen laguntzeko zerbitzuak eta hurbileko beste zerbitzu batzuk ematen dituzten enpresak sor daitezela sustatzea.

7.3.4. ekintza. Hurbileko zerbitzuez baliatzeko ekintza positiboko tresnak definitu eta ezartzea pertsonen zainketaren banakako ardura duten pertsonentzat.

7.3.5. ekintza. Eskolako ordutegitik kanpo eta oporretan haurrentzako zerbitzuak eta jarduerak -- kulturalak, hezkuntzakoak, kirolekoak eta aisia eta denbora librekoak-- abian jar daitezen bultzatu eta sustatzea, eta dauden baliabide guztien zabalkunde koordinatua egitea.

7.3.6. ekintza. Udalek, garrantzia duten gizarte eragileekin adosturik, bateratzearen aldeko neurriak har ditzaten lagundu eta sustatzea.

7.4. helburua. Bizitza pribatua eta familia eginkizunak zaindu eta kudeatzeko ardurak emakumeen eta gizonen artean modu desorekatuan banatzeak dakarren errealitatea, eta osasunean, lana lortzeko edo lanean aurrera egiteko aukeretan dituen ondorio ekonomikoak ikertu eta haien zabalkunde egitea.

7.4.1. ekintza. Ikerlanak egitea, zereginen eta arduren gaur eguneko banaketa desorekatuak biztanleengan dituen ondorio ekonomikoak ez ezik ondorioen azterketa kualitatiboa ere kontuan hartzen dituztenak.

8. ARLOA

EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA PARTE-HARTZE SOZIAL ETA POLITIKOA

SARRERA

Pekingo 1995eko Adierazpenaren 13. epigrafean jaso zenez, "Emakumeen jabeakuntza eta haien parte-hartzea, berdintasunez, gizartearen arlo guztietan, erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea eskuratzea barne, funtsezkoak dira berdintasuna lortzeko, (...), beraz, emakumeen parte-hartze politiko eta soziala emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraikitzeko oinarrizko zutabetzat hartu behar da.

Azken urteotan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eman diren pausoen ondorioz nabarmen handitu da emakumeen parte-hartzea zenbait arlotan, hala nola hezkuntzan eta lan ordaindian, baina ez da era berean gertatu parte-hartzearen igoera hori botere eta erabakiak hartzeko egituretan. Nafarroako emakumeek erakunde politiko eta sindikaletan eta elkarteetan duten parte-hartzea, oro har, txikia da oraindik. Horrek adierazten du emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko badagoela zer egina, orain arte bide luzea egin bada ere.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean.

- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.
- Kultura eta Turismo Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Toki Administrazioiko Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

8.1. helburua. Emakumeek arlo sozialean, politikoan eta sindikalean parte hartzeak egiazko berdintasuna lortzeko duen garrantziaren zabalkunde egin eta Nafarroako gizartea sentsibilizatzea.

8.2. helburua. Emakumeek Nafarroako Foru Komunitateko erakunde politiko eta sindikaletan duten presentzia eta parte-hartzea sustatzea.

8.3. helburua. Nafarroako Emakumearen Kontseiluaren egitura eta antolaketa berrikustea.

8.4. helburua. Emakumeek Nafarroako elkarteetan duten presentzia eta parte-hartzea sustatzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

8.1. helburua. Emakumeek arlo sozialean, politikoan eta sindikalean parte hartzeak egiazko berdintasuna lortzeko duen garrantziaren zabal-kundea egin eta Nafarroako gizartea sentsibilizatzea.

8.1.1. ekintza. Aldizka, azterlanak egitea emakumeek elkarteetan, alderdietan eta sindikatuetan duten presentziaz, parte-hartze kuantitatibo eta kualitatiboari buruzko informazioa jasoz, eta azterlan horien zabalkundea egitea.

8.1.2. ekintza. Emakumeen elkarteetan bilakaerari eta egungo premiei buruzko azterlanak egin eta horien zabalkundea egitea, herrietako nahiz hirietako emakumeek horietan parte har dezaten bultzatuz.

8.1.3. ekintza. Neskatoei eta emakume gazteei erraztasunak ematea sozializazio prozesuetan batzuetan bermaturik ez dauden gaitasun eta jarrerak beregana ditzaten (lidergoa, adierazgarritasuna, talde-lana...).

8.2. helburua. Emakumeek Nafarroako Foru Komunitateko erakunde politiko eta sindikaletan duten presentzia eta parte-hartzea sustatzea.

8.2.1. ekintza. Ekintza positiboko neurrien ezarpena bultzatzea, emakumeen parte-hartze politiko eta sindikalaren alde egiteko, batez ere ardura mailetan.

8.2.2. ekintza. Jarduera politiko eta sindikalaren antolaketak familia bizitzaren beharrak eta ordutegiak kontuan har ditzala proposatzea, eta balioa eman diezaiola familiako zainketaren eta arduren kulturari.

8.2.3. ekintza. Trukea sustatzea eta neskatoen eta emakume gazteen artean enpresetan, alderdietan eta sindikatuetan erantzukizuna duten emakumeen ereduak zabalitzea.

8.3. helburua. Nafarroako Emakumearen Kontseiluaren egitura eta antolaketa berrikustea.

8.3.1. ekintza. Nafarroako Emakumearen Kontseiluaren antolaketa eta eginkizunak berrikustea, eta ordezkariak, autonomia eta eginkizunak ahal

den hobekien betetzen lagunduko duten hobekuntzak eranstea.

8.3.2. ekintza. Nafarroako Emakumearen Kontseiluak Estatuko Kontseiluan duen ordezkariak sustatu eta erraztea, autonomia erkidegoetako kontseiluen ordezkariak organoa den aldetik.

8.4. helburua. Emakumeek Nafarroako elkarteetan duten presentzia eta parte-hartzea sustatzea.

8.4.1. ekintza. Dirulaguntzak ematerakoan, elkarteetako erabaki organoetan emakumeak egoitegiatik pizgarriak ematea.

8.4.2. ekintza. Aukera berdintasuna sustatzeko ekintzei laguntzea, bai elkarteetan barnean bai hartzaileen artean.

8.4.3. ekintza. Emakumeen parte-hartzea indartzeko euren antolaketan aldaketak egin nahi dituzten elkarteetako laguntza tekniko eta aholkuak ematea.

8.4.4. ekintza. Elkarteak sortu eta kudeatzeko orientabideak ematen dituzten materialak prestatzea, elkarte bat sortu nahi duten emakumeentzat.

8.4.5. ekintza. Prestakuntza eta kultur trukaketarako ekintzak diseinatzea, beste kultura batzuetako emakumeak ezagutu eta integratzeko.

8.4.6. ekintza. Emakumeen elkarteetan lana eta jarduerak jaso eta aldizka haren zabalkundea egitea.

8.4.7. ekintza. Gobernu departamentuetan, toki entitateetan eta beste erakunde batzuetan elkarteentzat dauden baliabideak eta zerbitzuen zabalkundea egitea.

8.4.8. ekintza. Emakumeen elkarteetan sareak antolatzen eta kudeatzen laguntzea. Nafarroako eta Nafarroatik kanpoko emakume elkarteetan arteko topaketak bultzatzea.

9. ARLOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

SARRERA

Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko 1993ko abenduaren 20ko Adierazpenaren 3. artikuluan jasorik dagoenez, emakumeek eskubidea dute giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiez berdintasunez baliatzeko, bai esparru politikoan, bai ekonomikoan, sozialean, zibilean eta beste edozeinetan, eta eskubide horiek babestu dakizkien." Nazio Batuen AG 48/104 Ebazpena).

Generoko indarkeria pertsonen oinarrizko eskubideen kontrako eraso da eta, hortaz, esta-

tuek esku hartu behar dute herritar guztiak horietaz salbuespenik gabe baliatu ahal izateko baldintzak sustatzeko.

Nazioarteko araudiak, Europar Batasunak, Espainiako Antolamendu Juridikoak eta Nafarroako foru legeriak arau ugari eta garrantzitsuak sustatu dituzte, eta horrek agerian uzten du botere publikoek konpromisoa hartu dutela gaitz sozial horri, gure erkidegoan ere baden horri, aurre egiteko.

Familiaren esparruan gertatzen den generoko indarkeria, etxeko indarkeria ere deitzen dena, indarkeria mota bereziki gaiztoa da, bertan gehiegikeria fisikoak, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa metatzen baitira maiz. Horrexegatik, arreta integrala behar da indarkeria mota hori behin betikoz desagerrarazteko, hau da, haren kontra borrokatzeko eta prebentziorako. Gertaera estrukturala eta konplexua da, eta jatorrian arrazoi anitz dituen. Ez da arazo pribatu bat, arazo soziala baizik eta, desagerrarazteko, diziplina askotatik heldu behar zaio, eta tratamendua eman, esparru desberdinetatik koordinaturik. Premiazkoa da, bestetik, esku-hartzea protokolo baten arabera izatea.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua
- Osasun Departamentua
- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua.
- Toki Administrazio Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Nafarroako Emakumearen Institutua
- Gobernu Ordezkaritza.
- Nafarroako Auzitegi Nagusia.
- Fiskaltza.

HELBURUAK

9.1. helburua. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako neurriak ezartzea.

9.2. helburua. Emakumeen kontrako indarkeria egoerak antzematea, eta haietan egiten den laguntza eta esku-hartzea hobetzea.

9.3. helburua. Nafarroan, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei lagundu eta harrera egiteko dauden baliabideak eta zerbitzuak egokitzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

9.1. helburua. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako neurriak ezartzea.

9.1.1. ekintza. Inplikaturiko erakundeetako funtzionario guztiak, esparru judizialeko segurtasun indarrak, osasun esparruko langileak, gizarte zerbitzuetakoak eta etxebizitza eta enplegu arloetakoak emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioran trebatzea.

9.1.2. ekintza. Generoko indarkeriaren kontrako sentsibilizazio ekintzak abiaraztea, herritar guztiei zuzenduak, bereziki emakumeek adin desberdinetan bizi izaten dituzten egoerei arreta emanez betiere.

9.1.3. ekintza. Komunikabideetako profesionalak sentsibilizatu eta haiek trebatzen laguntzea, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan tratamendu egokia ematen jakin dezaten, eta emakumeen eta gizonen berdintasun balioak zabal ditza ten.

9.1.4. ekintza. Sentsibilizazio ekintzak gauzatzeko, batez ere egoera makurrenean dauden emakumeen artean indarkeria mota ororen prebentziorari begira (etorkinak, prostitutak, presoak, ezgaituak, mendekotasuna dutenak).

9.1.5. ekintza. Belaunaldi gazteen hezkuntzaz eta prestakuntzaz arduratzen diren erakundeekin indarkeriaren prebentzioran lan egiteko behar diren bideak eta tresnak ezartzea.

9.1.6. ekintza. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Nafarroako Foru Komunitatean dauden zerbitzuak eta baliabideak biltzen dituen informazioa prestatu eta, aldizka, gaurkotu eta horren zabalkundea egitea; informazioa egokitzea egoera bereziki okerrean dauden emakumeei.

9.1.7. ekintza. Prostituzioaren aritzen diren emakumeei laguntzeko berariazko plan bat egin dadila bultzatzea, neurri integralak eta foru erakundeen arteko koordinazioak barne direla, sexu esplotazioaren prebentziorari begira eta prostituzioa utzi nahi duten emakumeei gizarteratzeko alternatibak eskaintzeko.

9.1.8. ekintza. Tokiak eta garaiak, hala nola, herrietako jaiak, gaueko aisialdia, edo diseinua, argia, irisgarritasuna edo babesa dela-eta segururak ez diren espazio publikoak, eta horiek indarkeria egoeretan izan dezaketen eragina aztertu, prebentzio ekintzak abiarazteko xedez.

9.2. helburua. Emakumeen kontrako indarkeria egoeretan detekzioa, laguntza eta esku-hartzea hobetzea.

9.2.1. ekintza. Behar diren tresnak eta bideak ematea honako legeak bete eta garatzeko: indarkeria sexistaren kontrako neurri integralak hartzeko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, hura aldatu zuen martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea, eta Generoko Indarkeriaren kontrako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, kontuan harturik lege horiek sentibilizazio eta prebentzio neurriak eta laguntza eta bizi proiektuak berregite neurriak daudela lege horietan.

9.2.2. ekintza. Etxeko tratu txarren eta/edo eraso sexualen biktima izan diren emakumeei laguntza integrala emateko Erakunde arteko Akordioaren emaitza den jarduketa protokoloa gaurkoteza, legeen eta teknologien arloetan izaten diren berrikuntzekin bat.

9.2.3. ekintza. Etxeko tratu txarren edo/eta eraso sexualen biktima izan diren emakumeei laguntza integrala emateko erakunde arteko akordioaren Jarraipenerako Batzordearen funtzionamendua arautzea, eta eraginkortasun eta operatibitate handiagoa ematea.

9.2.4. ekintza. Eraso salaketei buruzko datuak biltzeko irizpideak bateratzea, datu baseak bateratzeko eta bilketarako base komun bat sortzeko, esku hartzen duten zerbitzu guztiek erabili eta ustia dezaten.

9.2.5. ekintza. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko jarduketa protokoloan esku hartzen duten erakunde jarduketarako gidaliburu bat egin eta zabaltea.

9.2.6. ekintza. Indarkeriaren biktima diren pertsonentzako laguntza integrala bermatzeko behar diren tresnak eskantzea, tratu txarrak gertatu ondoren familiako lagun-egitearen, laneratzearen eta gizartearen bitartez.

9.2.7. ekintza. Indarkeriaren prebentzio prozesuetan kultura arteko bitartekarien presentzia erraztea, bai eta indarkeriaren biktima izan diren beste kultura batzuetako emakumeei laguntza eta tratamendua eman eta haien bizi proiektua berregiteko prozesuetan ere.

9.2.8. ekintza. Hainbat emakumeri kultura arteko bitartekari adituak bihurtzeko behar den prestakuntza eman dakiela bultzatzea.

9.2.9. ekintza. Buru-osasuneko programak sustatzea Indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eta erasotzaileei laguntza emateko.

9.2.10. ekintza. Erasotzaileentzako tratamendu programa ebaluatzea.

9.3. helburua. Nafarroan, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei lagundu eta harrera egiteko dauden baliabideak eta zerbitzuak egokitzea.

9.3.1. ekintza. Gizarte zerbitzuetako baliabideak planifikatzean indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza emateko ekipo integralak sor daitezela aurreikustea.

9.3.2. ekintza. Indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza eta harrera emateko ekipo integralak ezarri eta berriz banatzeko premiarik ote dagoen aztertzea (Gizarte zerbitzuen eskualdekatearen ondorioz).

9.3.3. ekintza. Indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza eta harrera emateko baliabideen eskaintza antzemandako beharretara egokitzea.

9.3.4. ekintza. Topagune berriak abian jartzea, hurbilago eta eskurago egon daitezen.

9.3.5. ekintza. Generoko biktimetzako telelaguntzako zerbitzu bat ezartzea Nafarroa osoan.

10. ARLOA

GARAPENERAKO LANKIDETZA

SARRERA

Nazio Batuen Garapenerako programari buruzko 1995eko giza garapenerako txostenean agerienez, "...Emakumeak aukera ekonomiko eta politiko askotatik bazterturik egotea, berez, aurrerapeneraren kontrako salaketa etengabea da ..."

Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 806/2004/EE Erregelamenduak, Garapenerako Lankidetzan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeari buruzkoak, aditzera ematen du nahitaezkoa dela lehentasun horizontal hori betetzea Europako funtsen laguntzarekin 2004-2006 urteetan finantzatzeko diren jarduketetan.

Garapenerako lankidetzako politikak, proiektuak eta programak taxutu, garatu eta ebaluatzean sexuan oinarriturik gertatzen diren egoera, baldintza eta behar desberdinak hartu behar dira kontuan, eta aintzat hartu behar da oinarritzko zerbitzuez baliatzean, erabakiak hartzean eta parte hartu eta baliabide ekonomikoak kontrolatzeari dagozkion alderdi askotan desberdintasun handiak daudela.

Organismo arduradunak ekintzak garatzean.

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamendua.

- Hezkuntza Departamentua.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Toki Administrazio Departamentua.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Nafarroako Emakumearen Institutua

HELBURUAK

10.1. helburua. Administrazio publikoa egokitzea garapenerako lankidetzaren arloari generoko ikuspegia eransteko.

10.2. helburua. Garapenerako lankidetzaren laguntza publikoetan baloraziorako baldintzen artean generoko ikuspegia ere agertzen dela bermatzea.

10.3. helburua. GKGE-ek eta garapenerako lankidetzan aritzen diren beste erakunde batzuek beren proiektu eta programetan generoko ikuspegia aintzat har dezaten sustatzea.

10.4. helburua. Generoko ikuspegia garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuetan eta programetan txertatzen dela bermatzea.

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

10.1. helburua. Administrazio publikoa egokitzea garapenerako lankidetzaren arloari generoko ikuspegia eransteko.

10.1.1. ekintza. Nafarroako administrazio publikoetan garapenerako lankidetzan inplikaturik dauden teknikariak eta kargu politikoak trebatzea aukera berdintasunaren eta generoko politiken arloetan.

10.1.2. ekintza. Sexuaren aldagaia modu sistematikoan sartzeari estatistiketan, programen jarraitapenerako datu baseetan eta arlo horretan egiten diren datu bilketetan.

10.1.3. ekintza. Nafarroako Foru Komunitateko garapenerako lankidetzaren gaitako araudia emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipiora egokitzea.

10.2. helburua. Garapenerako lankidetzaren laguntza publikoetan baloraziorako baldintzen artean generoko ikuspegia ere ageri dela bermatzea.

10.2.1. ekintza. Garapenerako lankidetzaren proiektu eta programak diruz laguntzeko arauetan, balorazio baldintzen artean, generoko ikuspegia sartzeari (emakumeen egoera, interesak eta beharrak proiektuak eta programak egin, bete eta ebaluatzerakoan).

10.3. helburua. GKGE-ek eta garapenerako lankidetzan aritzen diren beste erakundeek beren proiektu eta programetan generoko ikuspegia aintzat har dezaten sustatzea.

10.3.1. ekintza. Lankidetzaren esparruan generoko ikuspegia eranstea beharrezkoa dela ikusarazteko, sentsibilizazio kanpainak eta jardunaldiak antolatzea, eta emakumeek garapen bidean diren herrialdeetan bizi duten egoera agertzea.

10.3.2. ekintza. Garapenerako lankidetzan generoko ikuspegiari buruzko prestakuntza ekintzak gauzatzea GKGE-entzat eta esparru horretan aritzen diren beste erakundeentzat.

10.3.3. ekintza. Garapenerako lankidetzaren programak eta proiektuak diseinatu, abiarazi eta ebaluatzean generoko ikuspegia txertatzeko aukera ematen duten metodologia eta tresnak diseinatzea.

10.3.4. ekintza. Administrazio publikoaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lanean aritzen diren entitateen arteko lan eta lankidetzaren sareak sortzea, esperientziak, metodologiak eta jokabide egokiak ezagutzeko eta trukatzeko, eta generoari eta garapenerako lankidetzari buruzko materialak argitaratzeko.

10.3.5. ekintza. Lankidetzaren xede diren herrialdeetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun egoeren berri izaten lagunduko duten azterlanak eta ikerlanak egin daitezela bultzatzea.

10.3.6. ekintza. Garapenerako lankidetzan inplikaturiko gizarte eragilean artean aldaketak sustatzea, haien antolaketa generoko ikuspegia sar dezaten.

10.4. helburua. Generoko ikuspegia garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuetan eta programetan txertatzen dela bermatzea.

10.4.1. ekintza. Hezkuntzan jarduten dutenek garapenerako hezkuntzari generoko ikuspegitik heltzeko gaitasuna emanen dien prestakuntza jasoko dutela bermatzea.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	